

## Herririk Herri | 8

Anbulantziagaz gertatutakoa kritikatu dute Kurutziagako auzokideek



## Aisia | 18

Urkiola Landa Garapena baserri paisaien inguruko azterketa egiten ari da

## Kirola | 15

Angel Diaz de Cerio entrenatzaileagaz, Zaldua taldeak bikain hasi du liga

### DURANGALDEA | 8

## “Enpresak sartu gaitu arazo honetan; guk lan baino ez dugu egin”

San Eloy (Elorrio) eta Iketz (Abadiño) enpresek zorrak ordaindu ezin dituztela-eta Konkurtso Legea jo dute



Mikel Berezibar eta Maite Arginzoniz; San Eloy industria taldean lan egiten dute.

### DURANGALDEA | 4

## Erralde desagitea erabaki dute aho batez

Erralde osatzen duten hamabost herrietako ordezkariak enpresa desagitea erabaki zuten eguazteneko batzarrean. Guztira, ia 2,4 milioi euro zor dituzte.



### DURANGALDEA | 3

## Hauteskundeen emaitzak 'anboto.org' webgunean

### KULTURA | 13

## Azokide kanpaina abian, Durangoko azoka babesteko

### Elorrio | 6

Arartekoak bat egin du udalagaz Berriozabalen auzian

### Mallabia | 7

Talde ezagunen kontzertuak Mallabiko Urriko jaietan

### Atxondo | 7

Ondasun higiezin zerga txarto kobratu du udalak

### Mañaria | 4

Eskola materiala erosteko diru laguntza emango du udalak



## KOART 903

Sukaldeak - Bainugelak - Horma-armairuak



DURANGO

## Anbulantziagaz izandako arazoek kezka sortu dute

Auzokideak kezkatuta daude Kurutziagan gazte bat artatzeko arazoak izan zituelako ambulantiak

Udalak Kurutziagan "arratoi zuloa" sortu duela azaldu du Begoña Berrocalek, urriaren 12ko gauean ambulantiak artatu zuen gaztearen amak. Anbulantziak txosnak kokatuta dauden kalera sartzeko arazoak izan zituela dio eta udaltzaingoak ez ziela lagundu. Udalak kaleratu duen prentsa oharreko hainbat datu gezurtatu ditu gaztearen amak.

**Udalak kaleratu duen prentsa oharreko hainbat datu gezurtatu ditu gaztearen amak**

Oraindik estualdia gainetik kendu barik du gaztearen familiak. Udalaren jarreragaz suminduta daudela adierazi dute. Haserre daude bai egun horretan Udaltzaingoak eduki zuen jarreragaz, eta baita astelehenean Durangoko Udalak gertaeraren inguruan kaleratutako prentsa oharrengatik ere.

Gau horretan, Kurutziaga kaleko etxebizitza bateko gazte batek konortea galdu zuen. Gurasoek 112 zenbakira deitu zuten. Berrocalek adierazi duenez, Udaltzain-

gora ere deitu zuten, "baina ez ziren agertu". Gurutze Gorriaren ambulanzia Astarloa kaletik sartzen saiatu zen, baina bidea zarratuta aurkitu zuen. Ostean, Ertzain Etxearen aldetik sartzen saiatu ziren, baina eszenatokiak bidea oztopatzen ziela diote. Gurutze Gorriko kideak Ertzain Etxera sartu ziren kale horretara nondik sartu galdetzeraz eta Musiko Altuna kaletik kontrako norazkoan joateko erantzun zitetela azaldu du amak.

Gau hartan Durangora etorri zen Gurutze Gorriko kide batek familiaren bertsioa baieztatu du. Udalak kaleratu duen oharrean, berriz, ambulantiak ez zuela sartzeko arazorik izan dio Aitziber Irigoras alkateak. Berrocalek azaldu duenez, "Gurutze Gorri deitza baina ez dago izan zituzten arazoak argitzeko".

**Aitziber Irigoras: "Gertaera nardagarria da, tribu basatiek baino egin ez dezaketena"**

Anbulanzia txosnagunera sartu zenean, pertsona batek pintada bat margotu zuen ibilgailuaren kanpoko aldean. Gaztearen amak



Kurutziaga kalean kokatu dute aurten txosnagunea.

gaineratu duenez, "anbulantzia pintada egiten hasi zirenean ambulantiakoak haserretuta deitu zuen Udaltzaingora eta orduantxe etorri ziren laguntzera". Udalak bere idatzian gazte horien pintadak baino ez dituela kritikatzeko dio Berrocalek "anbulantziak kalera sartzeko izan zituen arazoaren aurrean duen erantzukizuna bere gain ez hartzeko". EAJk dioenez, pintadena "gertaera nardagarria da, tribu basatiek baino egin ez dezaketena". Gurutze Gorrikoek, gaztea ikusita, ambulanzia medikalizatu bati deitu zioten, eta lurretako autobideko ordainlekuan elkartu ziren. Gaztea Gurutzetako ospitalera eroanzuten eta larritasunetik kanpo dago. Hala ere, bere amak alkateari galdetzen dio ea zer gertatu-

**Gaztea Gurutzetako ospitalera eraman zuten eta larritasunetik kanpo dago**

**Txosnak: "Txosnagunera sartzeko aurreikusitako ibilbidea Astarloa kaletik da"**

ko litzatekeen gaixoak bihotzekoa izan balu. "Denborarik izango zuen ospitalera bizirik heltzeko?". Alkateari mezua bidaltzen dio: "Oraingoan zure prepotentziak eta itsutasunak Kurutziagako bizilagun baten heriotza sortu zezakeen. Pentsa ezazu".

**"Ez ziguten deitu"**

Txosna Batzordeak joan zen asteburuan ambulantiarekin gertatutakoaren inguruan duen ikuspuntua jakitera eman du. Diotenez, "argi eta garbi gelditzea" gura dute ambulanzia txosnagunera sartzeko aurreikusitako ibilbidea Astarloa kaletik sartu eta txosnagunea zeharkatuz beste aldetik irtetzea dela. Gaineratu dutenez, udalak, Astarloa kalean hesi bat kateatu zuen eta ambulantiak ezin izan zuten handik pasatu. Txosnaguneari edozer gertatuaz gero, Udaltzaingoak eta Ertzaintzak txosnaguneko arduradunaren telefono zenbakia dauka zeozer gertatuaz gero berehala deitu eta neurriak hartzeko: "Ez ziguten deitu", azaldu dute batzordekideek. ■ J.G.

## Emakume antifaxistak gogoan, 'Agurrik gabeak' ekitaldian

Durango 1936 elkarteak antolatutako omenaldia urriaren 26an izango da

Emakumeek egindako ekarpena aztertuko dute aurten borrokalaria antifaxisten omenezko *Agurrik gabeak* ekitaldian. Faxismoaren biktimak izan zirenak ezagutzeko, omentzeko eta aldarrikatzeko lanean dabil Durango 1936 kultur elkarteak, eta bosgarren urtea da ekitaldia antolatzen duena. Urriaren 26an izango da San Agustin Kultur Gunean, 20:15etik aurrera.

Omenezko aurrekuagaz eta lore eskaintzagaz hasiko da ekitaldia. Jarraian Maria Gonzalez Gorosari elkarteak kideak berbaldua eskainiko du, Durangoko emakumeen aurkako errepresio faxistaren inguruan. Kazetaria eta ikeritzailea da Gonzalez, eta arlo hori dokumentatu du. *No lloréis, lo que*

**Gonzalezek esan du emakumeen konpromiso antifaxista tapatu egiten dela**

**Benita Uribarrena izan zen borrokalaria antifaxistetako bat, eta ekitaldian omenaldiko dute**

*tenéis que hacer es no olvidarnos* liburuan irakurri ahal da emaitza. Aurtengo gaiak galdetuta, Gonzalezek esan du horretaz berba egin ohi denean emakumeen konpromiso antifaxista tapatu egiten dela, subjektu pasibotzat hartzen dire-

la. "Gizonak gorriak zirelako espetxeratu edo fusilatu zituztela esaten da". Gonzalezek hori ezeztatu du: "Gerran eta atzeguardian ez ezik, faxismoaren aurkako nazioarteko erresistentzian parte hartu zuten [andrek]". Berdintasunaren aldeko lanagatik, konpromiso bikoitza zeukatela dio.

Benita Uribarrena Bollain durangarra izan zen borrokalaria horietako bat, eta ekitaldian omenaldiko dute. Faxistek Durango bonbardatu ostean, Frantziara ebakutu zuten ume zela. Handik hiru urtera ama eta ahizpekin elkartu eta Frantziako erresistentzian parte hartu zuen. Iaz hil zen, Frantzia. Bere alabak parte hartuko du ekitaldian. ■ M.O.

ZALDIBAR

## Liburuen Poltsa ekimena, gaurtik aurrera martxan

Familia osoarentzako irakurketa kluba eratu eta hilero batuko dira, liburutegiak antolatuta

Hiru eta zortzi urte arteko umeak eta euren gurasoak dira Zaldibar-ko Liburutegiak antolatu duen Liburuen Poltsa izeneko ekimenean parte hartzen dutenak. Familiarentzako irakurketa kluba baita hilero batuko den hau. Gaur batuko dira lehenengoz.

Umeen literatur zaletasuna indartzeko helburuagaz antolatu dute tailerra, eta baita umeek

**Umeen literatur zaletasuna indartzeko helburuagaz antolatu dute tailerra**

liburutegia zelan erabiltzen den ikastea errazteko ere. Besteak beste, irakurzaletasuna eta ahazkotasuna landuko dute saioetan, eta Saroa Bikandik gidatuko ditu.

**Argazki saridunak**

Liburutegiak antolaturiko argazki digitalen lehiaketaren bigarren edizioa irabazle izenak jakinarazi dituzte, bestalde. Martxel Eloorriaga zaldibartarrak jaso du lehenengo saria. Portugalgo hondartza batean egindako argazkiagaz irabazi du. Virginia Lertxundi eloorriarrak Indian hartutako argazkiak jaso du bigarrena. ■ I.E.

**DURANGALDEA**



lazko udal hauteskundeetan herritarrak botoa ematen, Durangon.

# Hauteskundeak emaitzak, herrika, 'Anboto' digitalean

Lau alderdi nagusietako ordezkarien balorazioak ere jasoko dira *anboto.org*-en

**E**usko Legebiltzarrerako hauteskundeak jarraipen berezia egingo du Anbotok domekan. Boto kutxak ixterakoan, 20:00etan, herrietako emaitzak jasoko ditu erredakzioak. Momentuan bertan *anboto.org* webgunean eskegita egongo dira. Gainera, emaitza guztiak publiko egitean, lau alderdi nagusietako ordezkariak gertatutako baloratuko dute webgunean bertan.

Durangaldean 47.416 lagunek daukate domekan botoa emateko

**Mario Zubiagak emaitzen analisia egingo du eta bideo formatuan ikusi ahalko da**

eskubidea. Hamazazpi alderdiren artean aukeratu beharko dute boto zuria, baliobakoa eta abstentzioa ere badira aukerak, baina inkestean arabera EAJ, PSE-EE, PP eta EH Bilduk jasoko dute botoen gehien-goa. EAJ eta EH Bilduren artean egingo ei da garaipenerako borro-

ka; prebisioetan jeltzaleak doaz aurretik. Lehendakiritzaz gainera, sektore abertzalearen hegemonia egongo da jokoan.

**Barikuan, paperean**

Datorren barikuko *Anboto* aste-ariaren alean ere publikatuko dira domeka gauean jasotako emaitza eta informazioak. Gainera, Mario Zubiaga soziologoak emaitzen analisi sakonagoa egingo du, baita gobernu berrirako aukeren azterketa ere. ■ M.Onaindia



Maidar Gurrutxaga eta bere alaba Itxaso. Zesatenjuenaz

## 'Emadazu eskua' diruz laguntzeko deia egin dute

Ezintasun neurologikodun neskatila baten egoera azaldu gura du 'Emadazu eskua' dokumentalak

Ezintasun neurologikoa duen neskatila baten istorioa jasotzen duen dokumentala da *Emadazu eskua*: "Itxasok hamahiru urte ditu eta medikuek lau hilabete zituela atzeman zioten gaixotasun neurologikoa". Euren egoera azaleratu eta

**Hamar mila euro lortu gura dituzte eta horretarako hainbat bide zabaldu dituzte**

antzeko egoeran daudenei laguntzeko egitasmoa da.

Urte hasieran abiatu zuten Zesatenjuenaz ekoiztetxearen laguntzagaz eta, orain, diru-bilketak kanpaina jarri dute martxan finantzazioa lortzeko. Hamar mila euro lortu gura dituzte eta horretarako hainbat bide zabaldu dituzte. Adibidez, sortu duten bloga: [emadazueskua.blogspot.com.es](http://emadazueskua.blogspot.com.es).

Animazioz, elkarriketez eta fikzioz osatutako dokumentala da. Une honetan produkzio fasean dago eta finantzazio pribatua ezinbestekotzat jo dute. ■ A.B.

**HAUTESKUNDEAK**



## EAJk lehen sektorearen alde egingo duela dio

Jeltzaleek lurretan egin dute ekitaldia, eta bertan egon dira Ortuzar, Bilbao eta Atutxa



Hainbat sari irabazi dituen Jon Bikandiren lurretako ganadutegira etorri ziren, atzo, buruzagi eta militante jeltzaleak. Andoni Ortuzar Bizkai Buru Batzarreko presidentea, Jose Luis Bilbao ahaldu nagusia, eta Juan Mari Atutxa sailburu ohia egon ziren bertan, besteak beste. Behiak eta txahalak atzean eta Durangaldeko mendiak aurrean, Ortuzarrek irten zuen mikrofonora Iñigo Urkulluren aldeko botoa eskatzeko. Eusko Jaurlaritzan gobernatuz gero lehen sektoreko enpresak sustatuko dituztela esan zuen.

"Gure sektore tradizionalenak eguneratzeko eta berritzeko lanean aurrera egin behar dugu. Lehen sektorea garapen jasangarri eta iraunkorraren zutabe nagusienetakoa da". Belaunaldi berriak sektorean sartzen lagunduko dutela adierazi zuen. Ortuzarren berbetan, sektoreak elikagaien katean daukan presentzia indartuko dute, "daukan balio erantsia handitzeko".

Joan zen domekan ere ekitaldia egin zuen EAJK Elorrioren. Josu Erkorekak eta Ana Otadui alkateak egin zuten berba plazan herritarren aurrean.

- Oinetako patologiak
- Neurriera egindako plantillak
- Oinetako beste hainbat gaitz

**Ainara Urreta Jainaga**  
PODOLOGA 188. Elkargokidea

R.P.S. 21406

IMQ AEGON SERSANET SANITAS

Herriko gudarien kalea, 10 - behea • 48200 DURANGO • Tel./Faxa: 94 621 54 04

## Gure Kide

Albaitaritza klinika

Muruetako Auzoa, 1  
48220 MATIENA (Abadiño)  
Tel.: 94 620 16 21  
Larrialdia: 655 88 14 22  
[www.gurekide.es](http://www.gurekide.es)

Medikuntza - Analisi klinikoa - Ekografia - Erradiologia  
Kirurgia - Ospitalizazioa - Ile-apainketa - Osagarriak

DURANGALDEA

# Erralde sozietatea desegitea erabaki dute aho batez

la 2,4 milioi euro inguruko zorra ordaintzea da Erralde osatzen duten hamabost herrien helburua

**E**rralde hiltegi batzordea osatzen duten hamabost herrietako ordezkariak sozietatea desegiteko erabakia hartu zuten eguaztenean. Enpresaren likidazioa zelan egin erabakitze batzordea osatu dute. Hauek dira batzordea kudeatuko dutenak: Mikel Ansotegi Aulestiko alkatea eta Erraldeko presidentea (Bildu), Jesus Lekerikabeaskoa Isparterreko alkatea (EAJ) eta Jose Luis Navarro Abadiño alkatea (Abadiño-ko Independentiak).

### Lehenago, baserriarrei

Erralde osatzen duten udalen helburua elkartearen zorrak ordaintzea dela azaldu du Ansotegik. Ia 2,4 milioi euroko zorra du hiltegiak: 320.000 euro baserriarrei, hornitzaileei eta hartzekodunei zor diete. 120.000 euro kaleratutako langileen indeminazioena da (uztailean kaleratu zituzten). Horri

guztiari bankuarekin duten 1,9 milioi euroko zorra gehitu behar zaio. Ansotegik dioenez, bankuarekin duten zorra berriro negoziatu gura dute baserriarrei zor dietena ahalik eta arinen ordaintzeko. Bankuarekin duten mailegua, Berrizen hiltegi berria eraikitze lurrak erosteko eskatu zuten. Orain, enpresa deseginda, proiektu berria zalantzan dago.

Ansotegik dioenez, 2011ko uztailean Erraldeko zuzendaritza hartu zutenean hainbat arazo topatu zituzten, eta aitortu du ezin izan dietela aurre egin. Auzokideekin izandako arazoei eta udalagaz zuten alokairu kontratuaren amaierari Osasun sailaren baime-na kentzea gehitu zitzaion.

### Elorrio desados

Eguaztenean batzarrean desegitea aho batez onartu zuten arren, herri bakoitzak egin beharreko ordain-



2012ko urtarrilean Erralden egindako kontzentrazioa. K. Aginako

ketak abelburu eta biztanle kopuruaren arabera egitearen aurka agertu zen Joseba Mujika (EAJ) Elorrioko ordezkaria. Mujikaren berbetan akordio hori ustiapen gastuak ordaintzeko hartu zen, eta ez beste zor batzuk kitatzeko. "Elkarte mugatua sortzerakoan herri guztiok parte-hartze sozial berdina izatea adostu genuen, beraz, esplotazio gastuetarako baino ez da adostu herri handienek

gehiago ordaintzea". "Orain Elorrioko gehiago ordaintzea ez da justua, ezta legala ere". Enpresa oso gaizki kudeatu dela dio Elorrioko ordezkariak: "Hala ere, diru publikoagaz oso zorrotzak izan behar dugu eta ezin ditugu herritarrek engainatu". Zor handiak badaude, Berrizen hiltegi berria eraikitze erositate lurrak saltzea aukera bat izan daitekeela adierazi du Mujikak. ■ Jone Guenetxea

ABADIÑO

# "Milaka eurotako" lapurreta egin dute Eroskin

Zapatutik domekarako gauean sartu ziren lapurrak Hiper Eroski supermerkatuan. Oraindik ez dute lapurretaren kosturik kalkulatu, baina "milaka eurotako" izango dela diote supermerkatuko arduradunek.

### Soketatik zintzilikatuta jaitsi ziren teilatutik, eta bertatik atera zituzten produktuak

Lapurrak teilatutik sartu ziren. Soketatik zintzilik jaitsi ziren teilatutik lurrera eta toki beretik atera zituzten ostutako produktuak eta gailuak. Batez ere gailu elektronikoak eta informatikoak (telebistak, ordenagailuak, tablet-ak, argazki kamera digitalak...) eta produktu kosmetikoak (perfumeak, kremak...) eroan zituzten.

Eroskiko iturriek diotenez, supermerkatuko kameretan ikusten da lapurreta, eta Ertzaintzak dihardu grabazioaren gaineko ikerketa egiten. ■ J.D./I.E.

BERRIZ

# Andikona eta Berriz antzina zelakoak ziren ikusiko dute

XV.mendean baserriak zelan sortu ziren kontatuko dute, besteak beste, urriaren 27ko bisita gidatuan

Denboran atzera egin eta Berrizen baserriak sortu ziren garaira salto egingo dute datorren zapatuan, urriaren 27an, Andikonara antolatutako bisita gidatuan. XV. mendean baserriak zelan sortu ziren, kofradietan antolatutako Berrizko bizimodua, burdinolen eta erroten garrantzia... Hainbat gai landuko dituzte bisitan.

Ereña jatetxean hasi eta amai-

### Olazarreko burdinola eta Txanportako errota bisitatuko dituzte

tuko da bisita. Handik San Pedro Txikirajoango dira, eta Andikonako basilizan sartu-irtena eginda, Bizkaiko hargintzaren orduko lanak ikusiko dituzte. Ostean, Olazarreko burdinola eta Txanportako errota bisitatuko dituzte. Txanportan, Erdi Aroko elikaduraz berba egin eta errota martxan ikusteko aukera egongo da.

Europako Ondare Jardundien baitan antolatu dute Andikonako bisita. Euskarazko taldea 10:30ean irtengo da -gastelera- zkoa ere badago baina taldea bete da-. Izena emateko 94 603 39 38 zenbakira deitu daiteke. ■ A.U.

# Preso gaixoen inguruko mozioa adostu dute EAJk eta Bilduk

Azken udalbatzan preso gaixoen aldeko mozioa onartu zuen Berrizko Udalak. Bilduk aurkeztu behar zuen mozioa eta pleno aurretik EAJgaz batzartu ziren puntu komunak adosteko. Azkenean, mozio alternatibo bat prestatu zuten bi alderdien artean, eta hori irten

zen aurrera, EAJ eta Bilduren hamar zinegotzien aldeko botoekin eta PSE-EEren kontrakoagaz.

Testuan azaldu dutenez, udalak kezka adierazi du "preso gaixoen egoera larriaren aurrean". Espetxe politikan "giza eskubideak errespetatu eta bermatzearen aldeko konpromisoa" eskatu dute mozioaren bidez, eta preso gaixoen eskubideen urraketa amaitzeko eskatu dute, besteak beste: "Onurak aplikatu daitezela, edota kartzelatik atera, dagokionean, diskriminaziorik gabe eta arbitrariotasunik gabe". ■ A.U.

MAÑARIA

# Eskola materiala erosteko diru laguntzak emango ditu udalak

Guztira, udalak 3.500 euro gorde ditu diru laguntzen gastua kubritzeko

Ikasturte honetarako eskola materiala erosteko, familiei diru laguntzak emango dizkie Mañariko Udalak. Familiakide kopurua eta guztien errenten batura hartuko dituzte kontuan laguntzak emateko. Gehienez, 180 euro emango dute laguntza bakoitzeko; hiru ikasle edo hortik gora dauzkateinei, 500 euro asko jota. Guztira, udalak 3.500 euro gorde ditu gastu hau kubritzeko.

Bilduren botoekin onartu dute egitasmoa, EAJ abstentitu egin da-eta. Jeltzaleen ustez, laguntza horretarako bideratutako dirua elkarrekin eman behar zaie. Julen Uribelarrea zinegotzia

(EAJ): "Elkarrekin premia handiagoa daukate diru hori jasotzeko. Eskolarako, badaude beste beka zerbitzu batzuk". Endika Jaio alkateak (Bildu) demagogia egitea leporatu dio EAJri: "Beraiek agin-

### Familiakide kopurua eta guztien errenten batura hartuko dituzte kontuan

### Gehienez, 180 euro jasoko dituzte laguntzako; udalak 3.500 euro gorde ditu

tean egon direnean inoiz laguntza barik utzi dituzte". Aurten elkarrekin laguntza handiagoa eman dietela esan du, hori bada kiela EAJk, eta urtea amaitzeko hile biren faltan, dirua zer egiteko emango gura duten galdetu du Jaio.

### Martinez de Lezea, bihar

Bihar Ondarearen Europako Jardundien baitako ekitaldiak egongo dira Mañarian. Arratsaldeko 17:00etan, Erdi Aroko euskal emakumeen inguruko berbaldea eskainiko du Toti Martinez de Lezea idazleak. Horren ostean, bisita gidatua eta organo kontzertua egingo dituzte. ■ M.O.

IZURTZA

# Konposta nork bere etxean egiten hasiko dira Izurtzan

Eguaztenean Azterlaneko teknikariak udaletxera doaz ikastaroa ematera eta materiala banatzera

Nork bere etxean konposta egiteko udalak sustatu duen ekimena datorren astean hasiko dute. Ekimena kudeatzeko ardura duen Azterlan ikerketa zentroko ordez-

kariak datorren eguaztenean, 19:00etan, udaletxera joango dira. Konposta egiteko materiala banatuko dute ekimeneko parte hartzaileen artean eta konposta zelan

egin jakiteko gomendioak emango dituzte: prozesua zelan ematen den, konpostadora zelan muntatzen den, zer hondakin eta zer modutara bota behar diren... Gainera, paret hartzaileei telefono bat utziko diete edozein duda sortuz gero deitu eta galdetu dezaten.

Abenduan eta urtarrilean etxeko etxe joango dira Azterlaneko teknikariak, konposta zelan egiten ari diren bertatik bertara ezagutzeko eta zertan hobetu daitezkeen esateko. ■ J.D.



Goi-mailako  
elikagaiak  
Alimentos de  
calidad superior

# Eusko Labela duten kalitate goreneko elikagaiak Benetakoaz gozatu

Eusko Label produktuaz gozatzea, hain zuzen ere, gure ekoizleek beren lanean jartzen duten arreta balloesten jakitea da, ingurune pribilegiatu parekaezin bat iraunarazten jakitea da, goi mailako kalitate ziurtatua duten produktuak aukeratzen jakitea da... eta benetakoaren zaporeaz gozaten jakitea da.

Gehiago jakiteak gehiago gozatzea baitakar.



[www.benetakoazgozatu.com](http://www.benetakoazgozatu.com)



**hazi**

Landa eta itsas ingurunearen  
garapenerako Eusko  
Jaurlaritzaren Korporazioa

Corporación del Gobierno  
Vasco para el desarrollo  
del medio rural y marino

## ELORRIO

## Arartekoak bat egin du udalagaz Inma Berriozabalen auzian

Arartekoak uste du presoek udalaren mozioan adierazten den tratua jaso behar dutela

Elorrioko Udalak herriko preso politikoaren inguruko mozioa onartu zuen uztailearen 25ean. EAJk aurkeztu eta berak bakarrik babestu zuen. Giza eskubideen ikuspegitik egiten zuen berba alderdi jeltzaleak. Presoak Euskal Herriko kartzelataratu hurreratzeko, onurak

### Gaixorik dagoen Berriozabalen kasuan legea zorrotz betetzea eskatu zuen udalak

ezartzea edota zigorrak ez luzatzea eskatu zuen. Batez ere, gaixorik larri dagoen Inma Berriozabalen egoeran egiten zuen indarra. Berriozabalen kasuan legea zorrotz betetzea eskatu zuen udalak-zigor kodearen 92. artikulua aplikatuta baldintzapean aske geratzeko

## Euskarari indarra emateko gune baten premia ikusi dute

Euskararen egoera hobetzeko ekintzak proposatu dituzte 30 elorriarrek, pasa den asteko batzar irekian. Udala datozen bost urteetarako Euskara Biziberritzeko Plan Nagusia (EBPN) prestatzen hasi da,

aukera izango luke-. Mozioa hainbat erakundetara bidali zuen, atxikimendua jaso eta giza eskubideen kontrako jarrerak desagerrarazteko neurriak hartzeko eskatuz. Bada, Arartekoak erantzun du: "Erakunde honek uste du espetxean dauden pertsonen mozioan adierazten den tratua jaso behar dutela". Gainera, azaldu du lehengo ere eman duela bere ikuspuntuaren berri, eta epaile zein justizia arloan lanean dabiltzan artean ere zabaldu duela.

Herrira mugimenduak aurkeztutako mozio baten alternatiba legez onartu zen EAJrena. EAJk kritikatu zuen Herririk ez zuela aipatzen indarkeria eta biktimen aitortzarik. Bilduk Herrirarena babestu zuen, eta EAJrena ez. Azken hori alkatearen kalitateko botuagaz aterazen aurrera. ■ M.O.

eta ekarpenak batu dituzte. Sentsibilizatzeko eta euskara prestigiatzeko hainbat proposamenek irten dute batzarrean, eta euskara bultzatzeko gune baten premia ere agertu dute parte-hartzaileek. Elorriarren %59 elebiduna izan arren, kalean hamar elkarrizketatik hirutan erabiltzen da euskara.

Elhuyar aholkularitzako teknikariek plangintza-txostena idatziko dute orain. Abenduaren hasieran udalbatzarrera eroatea aurreikusi dute. ■ A.U.

## Elorrioko ikasleen erdiek oinez egiten dute eskolarako bidea

Herriko hiru ikastetxeetako 384 ikaslek Eskola Bidea ekimenaren lehen fasean parte hartu dute

Eskola Bidea egitasmoaren lehen fasea amaitu dute Elorrioko Udalak aurretik ipini zuen martxan, herrian mugitzeko moduen eta segurtasunaren gainean hausnarketa bultzatzeko. Eskolarako ibilbide bat diseinatu dute, ikasleak oinez eta helduen laguntza barik joateko. Prentsa oharrean azaldu dutenez, herri ikastetxeetako, Txintxirri ikastolako eta Lourdesko Ama ikastetxeetako 384 ikaslek hartu dute parte ekimenaren. Gainera, ikasleen artean mugitzeko ohituren inguruko inkesta bat egiteko aprobeztatu dute egitasmoa. Horren arabera, ikasleen erdiek oinez egiten dute eskolarako bidea. Autoz joaten dira %31, eta garraio publikoan

%16. Bizikleta %3k bakarrik hartzen dute, eta eguraldiaren arabera kopurua aldatzen ei da.

Ikasleen %60k heldu baten laguntza edukitzen dute bidea egiteko. Batez ere, 5. eta 6. mailako ikasleen autonomia baxua nabarmendu dute antolatzaileek. Bide-segurtasunari dagokionez, 10etik 7,22ko puntuazioa eman dute inkestatuek. %53k bidean oztupoak eta arriskuak daudela uste dute. ■ M.O.

### Bizikleta %3k bakarrik hartzen dute, eta eguraldiaren arabera kopurua aldatzen ei da

## Farmazietan hasi dira errezeta elektronikoagaz

Osakidetzak azaldu duenez, segurtasuna hobetzen laguntzen du sistemak



Elorrioko farmazietan errezeta elektronikoagaz lan egiten dute dagoeneko.

Paperezko errezetak zaharkitutako gauzak bihurtu dira Elorrioko. Urriaren 10az geroztik, errezeta elektronikoa erabiltzen hasi dira, Osakidetzak e-rezeta legez bataiatu duena. Elorriarrek osasun-txartel berria daukate, eta berau da medikamentuak lortzeko giltza. Horren abantaila nagusia gaixo kronikoek daukate. Izan ere, ez dute errezetak egiten osasun-etxera joan beharrik; txartela farmazian erakutsita nahikoa da. Medikuek ezarritako kontrolak egitera bakarrik joan beharko dute ambulategira. Osakidetzako

arduradunek azaldu dutenez, segurtasuna hobetzea da sistema berriaren helburua.

### Internet bidez

Medikuek txartelean barneratzen du oharra eta, gaixoak farmaziaro eroatean, beharginak ordenagailuan ikusten du. Eman beharreko botiken konfirmazioa eskatzen dio medikuari Internetez. Horrela, bezeroagaz eta berak hartzen dituen botikekin bateragarria izatea bermatuko da. Produktuen historial osoa gordeko da txartelean.

Larrañaga-Balenciaga farmaziako Arrate Larrañak azaldu du momentuz bezeroak gustura daudela sistemagaz. Bere ustez, tresna eraginkorra da, nahiz eta konfirmazioagatik prozedura apur bat luzatu. Jaio-Olabarrietako Eli Jaiok esan du eguneko lana atzeratzen zaiela, baina gero paperekin egin beharreko lan osoa kentzen diela. Sistema berriak kontrola hobetzen duela uste dute Larrañagak eta Jaiok.

2013rako, sistema EAE osoan martxan egotea itxaroten du Osakidetzak. ■ M. Onandia

## IURRETA

### Ludoteka, euskararen erabilera indartzeko

Euskara Biziberritzeko Plan Nagusian jasota dago eta gaur da izena emateko azken eguna

Gasteen artean euskararen erabilera eta ezagutza indartu guran ludoteka eratu dute, Euskara Biziberritzeko Plan Nagusiaren baitan (EBPN). Hamabostean behin, urriaren 27an hasi eta abendura

### Hamabostean behin urriaren 27an hasi eta abendura arte egongo da zabalik

arte egongo da zabalik, 10:00etatik 12:00etara. Izena emateko gaur da azken eguna, Ibarretxe kultur etxean.

Ipuinen sorkuntza, pertsonaien garapena eta txotxongilo tailerra landuko dituzte. Talde bi egongo dira: zortzitik hamabi urte arteko gaztetxoena eta hamahiru eta hamalau urtekoena. "Aisialdian euskaraz gozatzeko eta komunikatzeko aukera eman gura da". Umearen garapen prozesua era ludiko eta pedagogikoan garatzeko asmoa ere badute. ■ A.B.

## OTXANDIO

### Euskara erabiltzean bizitako egoerak kontatuko dituzte

Uda aurretik ikasitakoa praktikara zelan eroan duten elkarri azaltzeko kafe tertulia antolatu dute

Eguneroko bizimoduan euskara normaltasunez erabiltzeko dauden oztupoak zelan aurre egin jakiteko ikastaroan parte hartu zuten hainbat otxandiarrek uda aurretik. Orain, uda ostean, berriro

### Eguaztenean, 18:30etik 20:00etara, batuko dira Andresa Landa eraikinean

elkartuko dira hile hauetan bizitako esperientziak elkartrukatzeko. Datorren eguaztenean, 18:30etik 20:00etara batuko dira Andresa Landa eraikineko euskararen gelan. Kafe-tertulia moduan planteatu dute batzarra: kafea eta pastak udalak ipiniko ditu.

Esperientziak elkartrukatzeaz gainera, kontzepturik baliagarrienak gogoratzeko aurkezpen bat egingo dute. Era berean, kafe tertulia amaitu aurretik, aurrera begirako planak zeintzuk diren ere argituko dute. ■ J.D.



## Durungaldean labor

### Batza plataforma sortu dute, merkatarien erosketetarako

Durungaldeko merkatari eta ostalariek erosketak bateratuak egin eta kostuak murrizteko plataforma birtuala sortu dute, Batza Durungaldea. Bertara honezkerok 173 establezimendu batu dira, eta gaien araberrako erosketak taldeak ere egin ahalko dituzte hemendik aurrera. Informazio gehiago [batzadurungaldea.com](http://batzadurungaldea.com) atarian dago. +Dendak elkarteak sortu du Batza, amankomunazgoaren laguntzagaz.

### Durango umek tokiko zuhaitzak landuko dituzte

Domeka honetan, urriaren 21ean, hemengo zuhaitz motak landuko dituzte Alienalden. Durango ikastetxe bakoitzari bederatzi zuhaitz emango dizkiete, eta zentro bakoitzeko bederatzi umek landatuko dituzte arbolak, gurasoen laguntzagaz. Berdeago egitasmoaren baitan egingo da landaketa, eta Alienalderrantz udalaxe aurretik irtengo dute, 11:00etan.

### Abadiñoko iturriak egutegirako argazki

Iazko gaia baserriak izan zen, aurtengoa iturriak. Abadiñoko Udalak 2013ko egutegirako lehiaketa abiatu du, eta azaroaren 9ra arte egongo da argazkiak aurkezteko aukera. Egile bakoitzak argazki bi aurkeztu ahal ditu, eta e-postaz bidali hona: [lehiaketa@abadiano.org](mailto:lehiaketa@abadiano.org).

### Durango finalista Hiri Jasangarrien Sarian

Durango Udalakastehonetan jaso du Hiri Jasangarrien Sariko finalista agiria. Lehiaketa bostehun udalerririk parte hartu dute, eta Durango Udala finalista izan da Mugikortasun eta Aldaketa Klimatikoaren Sailean. Udal ordezkariak Madrillgo Cibeles jauregian jaso dute saria.

#### MALLABIA

### Ortu ekologikoak atontzeko auzolanerako deia egin dute

Ortu ekologikoen proiektuak aurrera darrai Mallabian. Datorren zapatuan, urriaren 20an, auzolana antolatu du udalak, herri baratzak atontzeko lanekin jarraitzeko. "Horrelako proiektu bat mar txan jartzeko, ahalik eta jende gehienaren parte-hartzeagaz errazago bukatuko ditugu lanak",

**Datorren zapatuan goizeko 09:00etan elkartuko dira**

azaldu du Mila Mondragon alkatetxak. Aurreko ekitaldian, urriaren 6an, 25 pertsona elkartu ziren eta lan giro ederrean aritu zirela azaldu dute antolatzaileek. Datorren zapatuan ere goizeko 09:00etan elkartuko dira baratzen eremuan hesiak ipintzeko, ongarria zabalteko eta antzeko lanetarako. ■ J.G.

## Kirola eta musika nagusi Mallabiko Urriko jaietan

Kokein, Iheskide, Governors, Vendetta eta Bizardunak taldeek joko dute hurrengo zapatuan

Urriaren 26tik 28ra ospatuko dira Mallabiako Urriko jaiak. Urriaren 26an, barikuan hasiko dituzte festak, 18:00etan. Ordu horretan izango da txupinazioa, eta baita enkartelada ere. Ostean, elizpeko pilota txapelketaren finala jokatuko dute. 20:00etatik aurrera bertso-poteoa egingo dute tabernetatik, Beñat Ugartetxea eta Aitzol Barandiaran bertsolariekin.

Zapatuan, kirol eta musika ekintzak izango dira protagonista nagusiak. Goizeko hamarretatik aurrera Frontenis txapelketaren final laurdenak jokatuko dituzte. Finalurrekoak 17:30ean jokatuko dira eta finala 20:00etan

izango da. Iluntzean, rock musikaren txanda izango da. Gaur egun Euskal Herrian puntakoak diren taldeen kontzertuez gozatzeko aukera egongo da Mallabian: Kokein, Iheskide, Governors, Vendetta eta Bizardunak taldeek kontzertu maratonia eskainiko dute 22:00etatik aurrera.

Jaietako azken egunean ere zenbait ekintza egongo dira. Eguerdian gaztetxoaren arteko pilota partiduak jokatuko dituzte. Arratsaldeko 18:00etatik aurrera Javier Garitaonandia, Aitxu eta Jesus Gisasola, eta Zelai aizkolarriak egongo dira plazan. Ostean, txokolatada prestatuko dute, eta aurtengo jaiak agur esan. ■ A.E.



Elorriko Iheskide taldearen kontzertu bat.

#### ATXONDO

### Ondasun Higiezin Zerga txarto kobratu du udalak

Ez diete %50eko hobaria aplikatu bizilagunak dituzten etxebizitzetzi; akatsa zuzenduko dute

Hainbat herritar udalaxera kexak joan ostean konturatu dira udal ordezkariak Ondasun Higiezin Zerga (OHZ) kobratzerakoan hankasartze bat egin dutela. Iazko

urriko udalbatzarrean, aho batez, OHZ orokorra bikoiztea onartu zuten, bizilagunak errolatuta dituzten etxebizitzetzi %50eko deskontua aplikatuz. Horrela, hobari

horren bidez, azken kasu horietako tasa zegoenean geratzen zitzaien, igoera barik. Neurri horregaz, hutsik dauden etxebizitzak penalizatu gura zituzten, jabeek errentan ipini edo saltzeko.

Iaz onartutako aldaketa aplikatzerakoan, ordea, konturatu barik herritar guztietzi aplikatu diete %100eko igoera. Ondorioz, udalak aurtengo OHZn kobratutakoaren erdiabuelatuko du, etxehorietan norbait errolatuta dagoela konprobatu ostean. ■ J.D.

#### GARAI

### Emakumeen janzteko modu tradizionala aztertuko dute

Historian zehar euskal emakumeen janzteko moduak ohi-turak aztertuko dituzte asteburuan Garain. Gerediagak, aldundiak eta udalak eratu dituzte ekitaldiak Europako Ondare jar-

dunaldien baitan. Biharko, berbal dia eratu dute, eta Amaia Mujika izango da hizlaria. 12:30ean hasiko du azalpena, Elizabarrin.

Gainera, bihar eta etzi Erdi Aroko kapeluen erakusketaz abalduko dute leku berean. Antzadenez, Bizkaiko etxekoandreak kapeluak janzten zituzten ospakizunen batera joateko. Baina, osagarriak baino gehiago eiziren: jabea nongoa zen edota haren gizarte-maila zein zen adierazten zuten. ■ M.O.

UDA GOIENENKO  
**OSTERA**

## ERRIMAK OINETAN

HAATIK DANTZA KONPAINIA

**ELORRIO,**  
ARRIOLA ANTZOKIA

Azaroaren 2an, barikua, 22:00etan  
Sarrera: 8 €

Antolatzailea:  
**topagunea**

Babesleak:  
**BFA DFB**  
**bbk**

Laguntzaileak:  
**GARA**  
**Deia**  
**berria**  
**ARRIOLA**

## BERBAZ &gt;

**“2007ra arte irabazi asko eduki dute eta dirua euren artean banatu dute”**

LABeko ordezkariak salatu dute San Eloy taldeak bazkideen kudeaketa txarragatik dituela ordaindu ezinako zorrak

**Mikel Berezibar eta Maite Arginzoniz**

LAB sindikatuaren ordezkariak dira biak; Berezibar Iketz enpresan eta Arginzoniz San Eloyen.

San Eloy 173 langile daude; Iketzen 82.

**S**an Eloy industria taldea bi enpresak osatzen dute: San Eloy fundizioak (Elorrio) eta Iketz mekanizazio lantegiak (Abadiño). Zorrak ordaindu ezin eta enpresa Konkurtso Lege-**ra jo dute. Jabeek egoera langileen esku utzi izana kritikatu du LABek.**

*Zor handiak dituelako sartu dira Grupo San Eloyko bi enpresak Konkurtso Lege-**ra.***

Hornitzaileekin eta bankuekin zor handia daukate eta kanpotik entzun genuen hornitzaileak enpresak salatzeak zeudela. Eurek eskatuta konkurtsora sartu aurretik, enpresak bere kabuz erabaki du konkurtsora sartzea. Prozedura desberdina izaten da.

*Kudeaketa txarto eroan dutela salatu duzue.*

2009an makina berri baten inbertitu zuten, eta eurek %80 ipini eta bankutik %20 hartu beharrean, bankuari eskatu zioten dena, interes handiagaz. Kalkuluak txarto egin zituzten: makina berriagaz egindako piezak produzitzea saltzea baino

garestiagoa zen. Prezioa zehaztu zuten, enpresak errentagarritasuna lor zezakeen jakin barik.

*Lantokietan sumatu duzue gertatzen zebilena?*

Normal ibili gara gu, lana geneukan, makina berriak etorri ziren... Ez gabiltza topera, baina lana badago. Arazoa finantziazioa da. Zor horren zurrumurrua entzun genuen, soldatak apur bat beranduago edo bi zatitan ordaindu zizkiguten, galdetzer joaten ginen... Eta azkenean hau.

*Zelan eragingo dizue?*

Oraingoan, hile eta erdiko soldata zor digute, eta gure lanpostuak kolokan daude. Sozietate mugatuko bazkideek esan dute ez dutela dirurik ipiniko. Eurek ez badute ipintzen bi aukera daude: kanpotik inbertsoreren bat etortzea edo langileen sozietate bat eratzea. Hiru hilabeteren buruan ez bada horrelakorik gertatzen, enpresak zarratu egingo dira.

*Zelakoa da enpresa taldeko jabeen jarrera?*

Esaten dute ez dutela euro bat

gehiago ipiniko, orain guri tokatzen zaigula lana egitea. Eurekin aurrez aurre batzartzeko eskatu dugu hiru biderrez, baina ez dira ausartu etortzen, abokatuekin baino ez gara egon. 2007ra arte irabazi asko eduki dute eta diru asko banatu dute euren artean. Orain eurek ez badute dirurik ipintzen, talde inbertsore bat ekar dezatela edo mugitu daitezela behintzat, ez daitezela etxean geratu. Jabeek sartu gaituzte arazo honetan, ez guk, guk lan baino ez dugu egin. Presioa egin gura dugu behintzat gu erosteko baten bat lortzeko. Oso jarrera txarra hartu dute. San Eloy eta Iketz zarratuz gero, hornitzaileen enpresak ere itxiko dira. Kalkuluak egin ditugu, eta lan barik geratuko dira beste 30 pertsona gutxienez. Enpresa txikiak dira, familietakoak, Duran-galdekoak.

*Zein izango da konkurtsoko administrazioaren funtzioa?*

Tailerra ez gelditzeko ahaleginak egin behar ditu. Legeak dio ezin duela zorrik utzi, eta horregatik hornitzaileei momentuan ordaindu behar zaie. San Eloy bi egun geldirik egon zen orain

**“Bezeroak urduri daude, eta badakigu beste mekanizatu batzuk bilatzen dabiltzala”**

**“Prezioa zehaztu zuten, enpresak errentagarritasuna lor zezakeen jakin barik”**

**“San Eloy bi egunez gelditu egon zen orain dela aste bi, lehengai barik gelditu ginelako”**

dela aste bi, lehengai barik gelditu ginelako. Geldi, hornitzaileei eskura ordaindu arte. Bezeroei eskatu diegu dirua aurreratzeko. Fakturazioan gutxika-gutxika sartzen den diruagaz baliatu behar da epaile konkurtsala, enpresak ez du beste dirurik utzi eta. Luzera Iketz edo San Eloy errentagarriak ez direla ikusten bada, itxi egin beharko dira.

*Zer diote bezeroek?*

Konponbiderik edo bidegarritasun plan bat eman ezean joan egingo direla. Urduri daude, eta badakigu batzuk beste mekanizatu batzuk topatzen dabiltzala. Bezero oso onak dira automozioan; Volkswagen, Audi, Mercedes... Eta piezak egunean eta ondo eginda gura dituzte.

*Zer diozue lan-sozietate anonimoa sortzeari buruz?*

ASLE (Sozietate Mugatuena Euskadiko Elkarte) bidegarritasun plan bat egiten dabil, horrelako sozietate bat sortzeko aukerak guri planteatzeko. Bazkideek utzi duten zorra kontutan hartuta, ahalegin handia egin beharko litzateke, enpresa birkapitalizatzeko. Bidegarria den ikusteko zenbakiak zeintzuk diren jakin behar dugu.


*Zelakoa da enpresa barruko giroa?*

Tentsio handia dago. Duda asko dauzkagu eta ezjakintasuna ere bai. Mobilizazioarako gogoia eta lanagaz jarraitzeko gogoia dago. Greba egunean 70 langile inguru batu ginen elkarretaratzean, bigarrenegun gutxitxoago, eta azken zapatuan ehun bat batu gara. Bazkideei presioa egiteko mobilizazioen egutegi bat prestatzen gabiltza orain. ■ A.Ugalde



# Ikusmen urritasuna duten pertsonen bizi kalitatea hobetu daiteke, laguntzagaz

Lourdes Arrizabalaga optiko optometristak eta Maider Llanosek ikusmen urritasuna lantzen dute Landakon



Ikusmen urritasuna eguneroko bizimoduan egiten ditugun jardueretan oztopo handia izaten da. Egunkaria irakurri, paseo bat eman, telebista ikusi, plantxatu.. Gaixotasun bat izan ez arren, ikusmenean muga hori izateak jende askoren bizimodua baldintzatzen du. Baina, ikusmen urritasuna aipatzen denean ez gabiltza itsutasunaz berba egiten. Pertsona batek formak desberdintzeko gaitasuna badauka, laguntzagaz bere bizi kalitatea hobetu ahal du.

Bizkaian ikusmen urritasuna lantzen duten hiruzpalau zentro daude. Landako Optika da horietako bat. "Ikusmen urritasuna

**Bizkaian ikusmen urritasuna lantzen duten hiruzpalau zentro daude. Landako Optika da horietako bat**

**Ikusmen urritasunaren helburua pertsona horrek ikusten duen apurra aprobetxatu eta laguntzea da**

duten pertsonak betaurreko arruntekin ez dute nahikoa izaten", azaldu du Lourdes Arrizabalaga Landako Optikako arduradunak. Ematen duten zerbitzuaren helburua pertsona horrek ikusten duen apurra aprobetxatu eta laguntzea da, Maider Llanos lankideak dioenez.

Hoberen ikusten duen begiak ikusmenaren %10 baino ez duenean ONCEk aholkularitza ematen du. Baina, jende asko dago hori baino gehixeago ikusita ere arazoak dituenak. Ikusmen urritasunak sendabiderik ez izan arren, teknologiak gaur egun hainbat baliabide eskaintzen ditu. Pertsona nagusi askok DMAE (ikusme-

naren gainbehera) izaten dute. Katarata edo retonosis pigmentariaren eraginez ere sortu daiteke. "Betaurreko bereziekin eta postura jakin batzuk ikasita, ikusmen apur horri etekin handia atera daiteke eta bizimodua erraztu".

**Hainbat baliabidea**  
Ikusmen urritasuna dutenei laguntzeko hainbat baliabide dituzte Landako Optikan. Lupak, filtroak, mikroskopiaok, telemikroskopiaok eta laguntza elektronikoak. "Kasu bakoitza sakon aztertzen dugu eta bakoitzarentzako lagungarri izan daitezkeen baliabideak ematen dizkiogu".

## DATUAK

### Ordutegia

Astelehenetik ostiralera:  
09:30-13:00  
16:30-20:00  
Zapatuetan, goizez.

### Helbidea

Juan Mari Altuna, 22  
Durango

### Kontaktua

Tel.: 94 6814999  
landako.optika@gmail.com

## Zerbitzuak:

Landako Optikak ohiko optika denda bateko zerbitzuez gainera, beste aukera batzuk eskaintzen dituzte. Durangon, berritzailea da optometriaren esparruan. Ikasteko arazoak prebenitzen eta tratatzen dituzte, ikusmen disfuntzioak aintzat hartuta.

- GRADUZAZIOAK
- BEGIEN AZTERKETA
- UMEEN OPTOMETRIA
- BEGIEN TERAPIA
- UKIPEN LENTEAK
- TONOMETRIAK
- TOPOGRAFIAK
- IKUSMEN URRITASUNA



## IRITZIA &gt;

gutunak@anboto.org

## Gutunak @

## Udalak sortutako arratoizulo handia

Durangoko Udalak, jai batzordeak eta alkateak (udal arduradun nagusia den neurrian), itxita eduki dituzte begiak, belarriak eta sen ona, Kurutziaga kalean txosnak ipintzeak ekarriko zituen arazo eta puntu beltzen aurrean, nahiz eta kaleko bizilagunek eta txosnetako ordezkariak arazo horien inguruan azalpenak eman eta ohartarazi. Fatxadetako txizak, kiratsak; gortzeko moduko musika goizaldeko 04:00, 05:00 edo 06:00ak arte, bai txosnetatik zetorrena edota fatxadei pega-pega eginda zegoen agertokikoa; garajeetara ezin sartu eta kalea moztuta eduki ia hilabete osoan. Errealitate oso desatseginak dira, Durangoko inork sufritu beharko ez litzukeenak. Inork ere ez.

Hori guztia txarra da, baina txarra izanda ere, iragankorra da. Hala ere, heriotza bat, urriaren 12ko barikuan gertatu ahal izan zenaren antzekoa, hori ezin da baimendu, alkate andrea. Urriaren 12ko barikuan, 22:54ean, nire etxean 112 zenbakira deitu behar izan genuen ambulanzia bat eskatzeko, nire alabak konortea galdu zuelako; ez zen esnatzen eta oso zail egiten zitzaion arnasa hartzea. Azaltzen diegu 112koei kalera sartzeko gatazka dela txosnengatik eta udaltzainei informatzeko, sartzen lagun diezaieten. Berandutzen direnez, atzera deitzen dugu, bi bider, baita udaltzainei ere (23:23an, zehazki). Itxaronaldia eternala egiten da, baina azkenean badatoz Gurutze Gorriko bi boluntario korrika, ezin izan dutelako sartu kalera ambulanzian. Saiatu ziren hiru lekutatik: lehenengo, Astarloa kaletik (ohiko sarrera da eta GPSak ere markatzen zien), baina txosnek blokeatuta dagoela ikusten dute; bigarrenik, ertzainenetik, baina oraingoan agertoki erraldoiak blokeatzen du bidea. Ambulanziatik jaitsi behar dute eta ertzainetara sartu galdetzeraz. Ertzainek erantzuten diete debeku seinaleetan gelditu barik pasatuta Musiko Altuna kaletik sartzeko. Azkenean, lortzen dute hurreratzea, baina beste blokeo bat, oraingoan giza-blokeoa. Denboratarte horretan guztian udaltzainak ez ziren agertu ambulanzia laguntzera; agian udalak bestelako betebeharrak batzuk aginduko zizkien, askoz lehentasun handiagokoak, kale-saltzaileak kontrolatu eta paperak eskatzearen antzekoak, adibidez.

Ambulanzia gidariak lortu zuen, jaizalaren bat zapaltzeko arrisku eta guzti, etxe atarira iristea eta ohatila igotzea. Momentu horretan, norbaitek, edariak eta musikak nahikoa entretenitu ez zuen batek, ambulanzia graffiteatzeko aprobeixatu zuen. Orduantxe agertzen dira, gidariak haserre deitzen dienean, udaltzainak. Etxean larri jarraitzen genuen, alabak esnatu barik jarraitzen zuela ikusita. Erizainak uneoro atseginak izan ziren eta bizi osoan eskertuko diet egindakoa; Osakidetzaren ambulanzia bati deitu zioten, mediku batek artatu zezan. Baina, aurreikusgarria zenez, bigarren ambulanzia lehenengoaren arazo berberak edukiko zituen, edo gehiago, orduetik ia ordu bete pasatu zelako eta jendetza handiagoa zelako, beraz, erabakitzen dute, era zentzudunean, nire alaba Gurutze Gorriaren ambulanzian ateratzea eta bigarrenagaz punturen batean topo egitea denborarik ez galtzeko. Puntu hori autobideko ordainlekua da eta bertan artatzen du nire alaba medikuak. Osasun langile guztien lana bikaina izan zen, oztopoen gainetik ezinezkoak zirenak eginez ahalik eta arinen artatzeko.

Gaur gertaera hauek salatu ahal ditut familiako kide baten falta eduki barik. Alabak zortea izan zuen eta ordu eta erdi beranduago esnatu zen, baina, zer gertatuko litzateke, alkate andrea, gaixo dagoenari bihotzekoak eman badio edo aneurismaren bat badu? Edukiko luke astirik pertsona horrek ospitalera bizirik iristeko? Posible da herri-babeserako teknikariak ontzat jo izana Kurutziaga kalea txosnak ipintzeko kokaleku egoki gisa? Jai batzordeko jaun-andreok eta alkate andrea, ez dut zalan-tzan ipintzen zuen asmo ona jaigiro alai sortzeko ahaleginean, baina uste dut zuen karguak behartzen zaituztetela ez bakarrik udalarekiko gure obligazioak betearaztera, baizik eta baita herritar gisa ditugun eskubideak defendatzera ere. Oraingoan beroren prepotentziak edo itsutasunak Kurutziagako bizilagun baten heriotza eragin ahal izan du. Gogoan izan.

-Erredakzioan itzulia-

Begoña Berrocal, Kurutziaga kaleko bizilaguna

## Txosna Batzordeak, asteburuan gertatutakoaz

Joan zen urriaren 12ko gauean txosnagunearan ambulanzia batekin gertatutakoaren inguruan hainbat adierazpen irakurri dugu hedabideetan. Gai honen inguruan Txosna Batzordeak duen ikuspuntua adierazi nahi dugu. Ambulanzia txosnagunera sartzeko izan zituen arazoan aurrean, argi eta garbi gelditzea nahi dugu ambulanzia txosnagunera sartzeko aurreikusitako ibilbidea Astarloa kaletik sartu eta txosnagunera zeharkatuz beste aldetik irtetea dela. Udalak, baina, Astarloa kalean hesi bat kateatu zuen eta ambulanzia ezin izan zuen handik pasatu.

Txosnagunearan edozer gertatuz gero, Udaltzaingoak eta Ertzaintzak txosnaguneko arduradunaren telefono zenbakia dauka berehala deitu eta neurriak hartzeko. Ez dugu ulertzen urriaren 12ko gauean telefono zenbaki horretara zergatik ez zuen inork deitu. Gainera, ambulanzia kideak Ertzain Etxera joan ziren nondik sartu zitezkeen galdetzeraz. Bat-batean ambulanzia eszenatokiaren aurretik txosnagunera sartu zen. Momentu horretan bertan lanean zeudenak boluntarioak ziren, inongo erabaki ahalmenik gabekoak eta ez zekitenak zer gertatzen zebilen. Gainera, lekukoek azaldu digutenez ambulanzia argi gabe sartu zen txosnagunera, beraz, kanpotik ez zuen ematen ezer larria zenik.


Ambulanzia txosnagunearan zegoela pertsona batek ambulanzian pintada bat egin zuen. Ekintza hau gogor salatu gura dugu. Txosna batzordeak jai giroa eta auzolana bultzatzen ditu, eta ez ditu inolaz ere mota horretako jarrerak onartzen.

Hurrengo egunean Kurutziagako auzokideek azaldu ziguten gertatutakoa larria izan zitekeela. Zorionez artatu zuten gaztea larritasunetik kanpo zegoen. Txosna batzordeko kideok batzorra egin genuen gertatutakoa argitzeko eta gaztearen familiarekin hartu-emanen jarri ginen.

Txosna Batzordeak gertaeraren aurrean autokritika egitea beharrezkoa dela irizten dion arren, gure erantzukizuna bete dugulakoan gaude. Gu gara lehenengoak gertatutakoa argitzea nahi dugunak eta horretarako lekukoekin, auzokideekin eta familiarekin berba egin dugu. Kurutziagako auzokideek Txosna Batzordearekiko izan duten errespetua eskertu nahi dugu gainera.

Jaiak bigarren asteburua geratzen zaigu oraindik. Txosnagunera gerturatu nahi duzuen guztiok ateak zabalik aurkituko dituzue. Jaiak alaitasunez eta errespetuz bizi gura dituzuen guztiok gonbidatuta zaudete!

Durangoko Txosna Batzordea



## Zure iritzia, gutuna edo fotodenuntzia helarazteko helbideak:

Bixente Kapanaga 9, 48215 lurreta  
astekaria@anboto.org  
Izen-abizenak, telefonoa, helbidea eta NAN  
zenbakiagaz batera bialdu behar dira.

Alderdi, elkarte edo taldeko iritzia kide baten izenean sinatuta eta ANBOTOren irizpideak jarraituz zuzenduta publikatuko dira.

## Laguntzaileak:



Aldizkari honek Bizkaiko Foru Aldundiaren laguntza jaso du



**anboto**  
komunikabideak

Bixente Kapanaga, 9  
48215-lurreta  
(Bizkaia)  
Tel.: 94 681 65 58  
Erredakzioa:  
94 623 25 23  
Publizitatea:  
94 621 79 02  
publi@anboto.org

2012ko urriaren 19a  
10. urtea - 476 zk.

## Zuzendaria:

Jone Guenetxea.  
**Erredakzio burua:**  
Joseba Derteano.  
**Administrazio burua:** Itziar Belar.  
**Administrazioa:** Miren Abasolo.  
**Publizitatea:** Goretti Alonso,  
Amaia Huarte, Itxaso Altuna,  
Jone Alberdi.  
**Erredakzioa:** Aitziber Basauri,  
Itsaso Esteban, Markel Onaindia,  
Amaia Ugalde.  
**Maketazioa:**  
Ainhoa Arizmendiarieta.  
**Zuzentzailea:** Ekaitz Goienetxea.  
**Argazkilaria:** Kepa Aginako,  
Zaldua Fuertes.

Lege gordailua: BI-2268/01 ISSN: 1578-7028 Tirada: 10.150 ale

@anbotokultura

# KULTURA

## XABIER ALCONERO > BIDEO-SORTZAILEA

**Madrilera bidea hartu zenuen iaz, ikusentzunezko komunikazioa ikasteko.** Horrela, da, bai. Iaz amaitu nuen Batxilergo bigarren maila, eta hasieran nire asmoa EHUra sartzea zen arren, azkenean Madrilgo Carlos III.a unibertsitatera etorri nintzen ikusentzunezkoen gradua egitera. Urte bete daroat Madril.

**Zer moduzkoa izaten ari da Madrilgo esperientzia hori?**

Ikasketei dagokienez jauzi handia izan da niretzat. Alde handia dago Batxilergotik unibertsitatera, onera. Gustora nabil unibertsitatean, jendea gehiago inplikatzeko delako gauzetan. Ez dugu teoria bakarrik ikasten, ikasten duguna kalean ipintzen dugu praktikan hurrengo egunean.

“Ikasten duguna kalean ipintzen dugu praktikan hurrengo egunean”

**Hainbat grabazio egin duzu kalean. M15ko mobilizazioen ingurukoak, esaterako.**

Horrela da, bai. Horiek ez dira klaserako lanak, baina bai unibertsitatean sorturikoak; unibertsitatean dago politika arloan murgiltzeko aukera. Elkarte asko dabilta lanean, eta ikasle eta irakasle askok indar eta ilusio handia daukate ideiak gauzatzeko. Esaten dute M15ko lehenengo kanpindendak gure unibertsitateko ikasle egoitzako oheetako izarekin egin zituztela. Espainia aldatzeko gunea Madril da, eta aldatzeko tokia unibertsitatea.

**Egin dituzun grabazioak gizarte mugimendu horietan parte hartu eta laguntzeko helburuz burutu dituzu?**

Bai. Sortzen ditugun dokumentalen eta fanzinema-ren bidez jendeari zer kentzen ari zaizkigun eta zer defendatu behar dugun esaten saiatzen gara.

**M15i buruzko dokumental luzea prestatzen ari zarete, ezta?**

Bai. Orain, unibertsitateko irakasleekin,



## “Nire kamera eta libretarekin joaten naiz mobilizazioetara”

Madril, ikusentzunezko komunikazioa ikasten du Xabier Alconero Durangoko gazteak. Hango ikasle eta langile mobilizazioak dokumentalean batuko ditu 'www.alconeroproducciones.com' helbidean

elkarteetako buruekin eta iritzi liderrekin elkarriketarako egiten ari gara. Guk badakigu zer nahi dugun eta zer ez, baina hoge urte dauzkagu, eta ekonomiaz eta politikaz ezer gutxi dakigu. Ez dugu panfletismo hutsa egin gura, eta horregatik, dakien jendeari galdetzen gabiltza, dokumentatzen.

“Ez da dokumental objektiboa, hasieratik ikusiko da zein aldetan gauden”

**Zelan moldatzen zara mugimendua barrutik bizi eta aldi berean honelako proiektuak garatzeko. Zaila da manifestaldietan grabatzen jardutea?**

Ez da batere erraza izaten gure lana burutzea, izan ere, besteak beste, karga polizialetan zure lan tresnak zapuztu ahal baitzikizute. Nire kamerarekin eta libretarekin joaten naiz mobilizazioetara. Hori bai, sobera ondo dakit zein aldetan nagoen, eta uste dut argi ikusten dela hori. Barrutik egiten dugu lan, ez da dokumental objektiboa, hasieratik ikusiko da zein aldetan gauden.

**Oso webgune osatua ipini duzu martxan: www.alconeroproducciones.com.**

Aurretik, Durangon grabatutako hainbat bideo neuzkan, eta webgunean batu gura izan ditut nire lan guztiak. Udan egin nuen webguneko lan hori. Oraindino ez naiz hasi promozio gogorra egiten, baina egia esan ez doa batere txarto: batzuetan beste mila bisita izaten ditut webguneak, egunean.

**Bideo sorkuntza lanak ere ikusgai daude zure webgunean, umore absurdodunak batzuk. Bazabiltza horrelako lanetan?**

Aste batzuk barru argitaratuko dut burutu dudana azkenengo film laburra, Madrilgo nire lehenengo urtean sentitutako bakardadeari buruzkoa da. Baina, nire umore absurdoak garatzeko lagunak Euskal Herrian utzi nituen. Madril ez dut topatu umore mota hori ulertzen duenik! ■ I.Esteban

## “Bilatu ez, asmatu egin behar dugu gurean lana”



Gaur egungo sistema politiko eta ekonomikoaren kontra, Madril, M15 mugimenduan murgilduta dabil iaztik Xabier Alconero. Mobilizazioetan grabazioak egin eta sare sozialetan ahal bezain beste zabaltzen. “Hau guztia lehenago edo beranduago lehertuko dela uste dugu, eta momentu horretan jendea gure aldean jar daitezen gura dugu”, azaldu du. “Borroka honetan gaudenok bestelako etorkizuna gura dugu gure seme-alabentzako”.

Orain eskuartean daukaten dokumentalerako, Espainiaren historia irakasle bat, eta ikasle elkarteetako eta M15eko jendeagaz elkarriketarako egingo dituzte. Ikasturte amaierarako gura dute prest eduki. Maria Merchan Rocamora-ekin dihardu elkarlanean. Attac elkarte-

ko kidea da Merchan. “Oinarrizko errentari buruzko berbaldi bat eskaini zuen Mariak unibertsitatean, eta nire etxean antolatu nuen jai batean ezagutu genuen elkar”. Alconeroren berbetan, “oinak lurrean dauzka berak”, eta bere “*filosofada panfletarioen* osagarri da”.

Ordu beteko film bat editatzen ere badabil Xabier Alconero: “Muturreko umore absurdoduna”. Izan ere, gogoak ematen diona ere atera gura izaten du: “Batuetan umorea, bestetan rapa egitea da gustatzen zaidana, nire bizitzan aurkitzen dudana buruz jardutea: injustiziak salatzea, barre eragiten didana munduarekin konpartitzea... Pentsarazi edo negarra edo barrea eragin”.

“Gustatuko litzaidake bideoak egitekin bizitzea”, dio, baina etorkizuna “Espainian beltz dago”. Komunikabide konbentzionaletatik aparte ikusten du etorkizunean bere burua: “Gure arloan, badakigu ezin dugula lan bat bilatzen aritu, lana asmatu egin behar dugu”.

URTEURREN EKITALDIA >



lazkoaren bidetik egingo dute aurtengo urteurren ekitaldia ere.

## Ekitaldi "intimo baina zabala" Plateruenaren urtebetetzerako

Urriaren 26an elkartuko dira 'plateruak' Durangoko antzokiaren zortzi urteak ospatzeko

Durangoko Plateruena kafe antzokia urriaren 28 batean zabaldu zuten, duela zortzi urte. Urteurrenaren ospakizuna urriaren 26ra aurreratu dute aurten. Datorren barikuan, beraz, "oso etxeko giroan" ospatuko dute *plateruek* zortzigarren urteurrenaren sortzen dien "poztasuna".

Bazkideentzako pentsatutakoa, baina Platerueneko erabiltzaile guz-

tiei irekitako "ekitaldi intimo baina zabala" antolatu dute aretoaren zortzigarren urteurrena ospatzeko.

Urtebetzea ospatu eta duela zortzi urte Plateruena eraikitzen lagundu zutenei, eta egunero aurrera ateratzen laguntzen dutenei esker ona adieraziko diete ekitaldi horretan. "Betetzen dugun urte bakoitza garai-pena da guretzat, eta eremu berri bat

geure egin dugula ospatu beharra sentitzen dugu".

Datorren barikuan, 20:30ean hasita, Durangaldeko hainbat sortzaileen parte-hartzeagaz, dantzak, poesiak, musikak, bertsoak hartuko dute antzokia. Plateruenaren Durangaldetik kanpoko lagunak ere bertaratuko dira: Rafa Rueda edo Gotzon Barandiaran, esaterako. ■ I.E.

### GEURE DURANGALDEA

Miren Amuriza  
Bertsolaria



### Lotsabako halakoa!

Gure belaunaldiko gazteok sarri entzun ditugu helduagoak Frankismoari buruz berbetan: irakasleak egurrezko erregelekin, haurrak Cara al sol kantetan, guardia zibilak kapa eta trikornioekin...

Errealitatekin baino, ia fikziotik hurrago ikusi izan ditugu orduko gertaerak. Garai ilun hartatik hiru hamarkada baino gehiago igaro ondoren, zenbait gauza gaindituta edo behintzat aldatuta zeudela pentsatzen genuen.

Baina duela urtebete Espainiako eskuindarrek aginpidea berreskuratu zutenetik, egunero iristen zaigu zur eta lur uzten gaituen berriren bat. Murrizketak han eta hemen; kultura, etorkinak, gastu soziala...

Zalantzarik ez dago lege aldaketa edota diru mozketak hauek herritarrak estualdian jartzen ari direla, baina salatu ditzagun artzirik horiek bezain mingarriak diren berbako labankadak ere.

Orain aste pare bat, hautsak harrotu zituen Jose Manuel Castela Bragaña alderdi popularreko diputatu ohiak. Haren hitzetan legeak emakumezkoak bezalakoak dira; bortxatzeko eginak. Sinestezina da 2012. urtean gizarte (ustez) aurreratu bateko ordezkari politiko batek adierazpen horiek egin izana. Gustora luzatuko nioke bereko erantzun bat jaun horri, baina horixe ere ez du merezi lotsabako halakoa.

Jendaurrean astakeria horiek esaten ausartzen badira, zer ez ote dute pentsatuko isilean! "Si tu no vas, ellos ganan" dio popularren kanpainako leloak.

Datozeneri aurre egin beharko diegu bada!

### KRONIKA Bizkaiko Bertsolari Txapelketa

Amaia Ugalde

### ARGAZKIGINTZA >

## Distira handi bako saioan, ofiziokaritu dira txukun Durangaldekoak

Ibon Ajuria gernikarrak lortu du finalerdietarako txartela; Uruburuk hirugarren egin du

Domekan lehen aldiz bozkatuko duten gazteak, aitaren taberna hartu gura duen semea, arte erakusketa ipini eta ama bakarrik bisitan izan duen artista... Bizkaiko bertsolari txapelketako bigarren kanporaketan batu ziren horiek denak, arratsalde euritsu bat gozotu guran. Distira handirik bako saio entretenigarria eskaini zuten bertsolariak, eta Ibon Ajuria merezita

Merezita lortu zuen Ajuria finalerdietan jarduteko txartela

lortu zuen finalerdietarako txartela, bertso osoenak botata.

Durangaldeko bertsolari bi izan ziren Balmasedan, Eñaut

Uruburu abadiñarra eta Ander Salaberria durangarra. Ofiziokaritu zortziko handian batez ere nahiko saio txukuna egin zuten biek. Uruburu, Ibon Ajuria aitaren taberna hartu gura zuen semearen kolkotik ibili zen kantatzen, eta hura lanik onena ez zela eta ezetz tematu ostean, Ajuria konbentzitzea lortu zuen. Salaberria "artistak" Ostolaza amaren bisita baino ez zuen jaso bere era-

kusketan: *arteaz ulertzen duen / bakarrazu zara*. Bota zion hasieran. Baina harek ezetz, konpromisoagatik joan zela. Salaberriak, orduan, koadro bat erosteko esan zion. Ostolazak semearengan fede handirik ez, eta aurreko ofizioari keinu egin da amaitu zuen: *noiz hartu behar dozu / aitaren taberna?*

Kartzelako lanerako honakoa izan zen gaia: "Urteak eman dituzu etxetik kanpo. Bueltatu zarenean, arrotz sentitu zara". Salaberriak krisialdiagatik etxera bueltatu behar zuen etorkinaren larrutik kantatu zuen, eta Uruburuk Mexikora errefuxiatu joan eta gero egin zuen etxerako buelta, amnistiaren ostean. Barrerako tarte asko egon ez zen saioan, Gorka Ostolazak eta Ibon Ajuria kartzelan umorea erabiltzeko lizentzia hartu zuten eta entzuleek txaloka eskertu.

Uruburuk 354 puntu lortu ditu eta finalaurretokora pasatzeko aukera eduki dezake. Oraindik beste hiru kanporaketa gelditzen dira baina; hurrengo urriaren 27an izango da Mungian. Durangaldeko bertsolariak bihamunean daukate zita; urriaren 28an Sopelan kantatuko dute Elortza, Sarriugarte eta Lazkanok, Larrazabal, Artza eta Ibarzabalegaz.

## Eduardo Momeñe argazkilariak tailer bat emango du, Durangon

*La visión fotográfica, algunas reflexiones sobre el hecho de fotografiar* izenburuko tailerra eskainiko du Eduardo Momeñe argazkilariak (Bilbo, 1952), Durangon. Azaroaren 10ean eta 11n izango dira saioak. Argazkigintza sorkuntzarako bitarteko legez zelan erabili landuko dute, besteak beste, Kinua argazki elkarteak antolatu duen ikastaro honetan.

Argazkia "kontzienteagoak, eta beraz, inteligentagoak". Horrelako argazkiak ateratzeko bideak jorratuko dituzte azaroko tailer horretan parte hartzen dutenek. Argazkigintza "gehiago gozatzeko" baliabideak eskainiko dizkiete argazkizaleei.

Esperientzia zabala dauka argazkigintzari buruzko ikastaroak gidatzen Eduardo Momeñek, eta hainbat erakusketa ere burutu ditu. ■ I.E.

Argazkigintza "gehiago gozatzeko" baliabideak eskainiko dituzte



DURANGOKO LIBURU ETA DISKO AZOKA > KANPAINA

# Azokide ziurtagiria, finantziario pribatua azokara erakartzeko

Durangoko Azokako zuzendariaren esanetan, enpresen laguntza oso garrantzitsua izango da aurtengo azokarako

Durangoko Liburu eta Disko Azokak aurrera jarraitzeko behar duen finantziarioa eta babes batzeko helburuagaz, Azokide kanpaina ipini dute martxan. "Azokide ziurtagiriaren bitartez, gure kultur-gintzaren sostengu den ekimen nagusia lagundu ahalgo dute merkataria, tabernaria eta enpresek", azaldu zuen Aiert Goenagak, azokaren zuzendariak.

Aiert Goenaga, Amets Txurruka Euskaltel taldeko ziklista eta Eñaut Zubikarai Errealeko jokalaria batu ziren joan zen egunean, ekimenaren aurkezpenean.

Enpresa pribatuek Durangoko Azokareriko duten atxikimendua erakusten duen ziurtagiria da

Azokide, azokak aurrera jarraitzeko behar duen laguntza eskainiko duena.

Laguntzaileentzako onurarik ekarriko du, gainera, babes horrek. Durangoko Azokak hain beharrezko duen laguntza ematen dutenek leku propioa izango dute azokako horma nagusian. "Ospakizunaren parte" bilakatuko dira azokaren laguntzaileak.

"Ospakizunaren parte" bilakatuko dira azokaren laguntzaileak



Aiert Goenaga, Amets Txurruka eta Eñaut Zubikarai, aurkezpenean.

Komertzial bat arduratuko da enpresaz enpresa kanpainaren zabalkundea egiteaz. Bestalde, Azoka egunetan -abenduaren 6tik 9ra- adukiko dute norbanakoek Azokide egiteko aukera: laguntza bonoak eskuratu ahalgo dituzte.

Azoka egunetan izango dute norbanakoek Azokide egiteko aukera

Durangoko Azoka zelan bizi duten azaldu zuten eguneko ekitaldian Amets Txurruka eta Eñaut Zubikarai kirolariek. Euskal kulturari ematen dion indarra, eta azoka jendearekin egoteko aukera dela azpimarratu zuten. ■ I.E.

LITERATURA > BERTSO-IPUINAK

# '11 kantatzeko' DVD eta liburuaren aurkezpena Hitz liburudendan

Proiektuaren hiru parte-hartzailek aurkeztuko dute bertso-ipuin bilduma, urriaren 26an

Urko Egaña, Olatz Amozarrain eta Antton Iztueta egileek aurkeztuko dute, urriaren 26an, *11 kantatzeko* DVDa eta liburu, Durangoko Hitz liburudendan. Bertso

bilakatu dituzten ipuin klasikoak dira bilduma horretakoak. Kantatu eta kontatzeko ipuinak jasotzen ditu apirilean kaleratu zuten DVD horrek, eta bertsoaren arteko zubia egiteko helburuz sortu zuten. Musika, marrazkiak eta literatura batzen ditu ikusentzunezko proiektuak.

DVDaren zuzeneko aurkezpena egingo dute, Hitz liburudendan

Mari Errauskin, Pinotxo, edo Txanogorritxo ipuin klasikoak jasotzen ditu, batetik, DVDak. Baina Oñatiko jentilen istorioa edo

Sant Jordiren kondaira ere kontatzen ditu, bestetik.

**Ipuinak kontatzeko tresna** "Gurasoek zein aitona-amonek beti izan dute seme-alabei edo bilobei ipuinak kontatzeko beharra, eta hau tresna egokia da", esan zuen Urko Egañak prentsaurrekoan.

Urko Egañagaz batera, Olatz Amozarrain musikaria eta Antton Iztueta irakaslea ere ariko dira datorren barikuan, proiektua jendaurrean aurkezten. DVDaren zuzeneko aurkezpena egingo dute Hitz liburudendan.

*11 kantatzeko* DVDan jasotako ipuin eta marrazki guztiak, eta kantuen partiturak ere jasotzen dituen liburu ere aurkeztuko dute. Irailean argitaratu dute. ■ I.E.



ANTZERKIA > EMANALDIA

# 'Kafe txinatarra' eskainiko dute Berrizko kultur etxean bi euskal aktore ezagunek

Kandido Urangak eta Asier Hormazak jokatuko dituzte obrako rola; bihar antzeztuko dute komedia dramatikoak

Txalo Produzioak Donostiako antzerki konpainiak ekoizturikoa da *Kafe Txinatarra* obra. Urriaren 20an, Berrizko kultur etxean antzeztuko dute, 20:00etan.

Eskarmentu handiko antzezleak dira obrako aktore biak: Hasier Hormaza getxoztarra eta Kandido Uranga zumaiarra.

Hector idazlearen rola jokatzen du Hormazak: literaturaren mundu horretan bidea egin gura duen 43 urteko idazlea da Hector, eta Julian lagunaren etxean agertuko da, gauerdiko ordu biak aldera. Egoera ekonomiko zein sentimental zaila bizi du.

Kandiko Urangak antzeztuko du, bestalde, 60 urte inguru-

ko Julian: arrakastarik ezagutu ez duen argazkilaria.

Komedia dramatikoak da osagai horien konbinaziotik sorturikoa: elkarrizketa bikainduna. ■ I.E.



**PLATERUENA Durangoko Kafe Antzokia**

www.plateruena.net

URRIAK 21 18:00etan  
**AIKO ERROMERIA**  
DANTZALDI IBILTARIA. Sarrera doan.

URRIAK 25 20:00etan  
**KANTULAGUN**  
KANTUZALEEN TXOKOA  
Izenematea Plateruena bertan

URRIAK 26 20:30ean  
**URTEURREN EKITALDIA**  
PLATERUENAK 8 URTE  
Ekitaldi irekia

Eguneko menua astelehenetik larunbatera  
Landako etorbidea, 4a 48200 Durango Tel.: 946 030 300

**PERRO QUE MUERE NO LADRA**  
Compañía do Chapitô

Urriak 25 • 20:00

San Agustín KULTUR GUNEA  
DURANGOKO UDALA

**Hitz**  
liburu-denda

artekalea 14,  
durango (bizkaia)  
info@hitzliburudenda.com  
946 810 776

# EDERTASUN GIDA

## ILEAPAINDEGIAK



- Jaione Llanos
- Zirkin estetika zentroa dauka Durango

### Zirkin-eko tratamenduak

Jaione Llanos irailean hasi zen Zirkin estetika zerbitzuan lanean. Lehenengo asteak pasata, kontatu du gustura dagoela eta hasiera ona izan dela. Hainbat tratamendugaz egiten du lan, eta azarotik aurrera laser bidezko depilazioa ere eskainiko du.

Zer eskaintzen duzue Zirkin estetika zentroan?

Depilazioak, gorputz tratamenduak, makillajea, betileetako permanentea... Denetarik apur bat. Selvert markako produktuekin egiten dugu lan. Etxera eroan gura duenarentzako, material hori zentroan saltzen dugu; Interneten ere erosi ahal dira produktuak. Zirkin gimnasioko bezeroak zein kanpokoak ere etorri ahal dira.

Azarotik aurrera eskaintza berri bat ere izango duzue, gainera.

Laser bidezko depilazioa egiten hasiko gara. Ate irekien egun bat antolatuko dugu, informazioa emateko. Interesdunek izena eman ahal izango dute, eta egun bat ipiniko dute lehen saiorako. Edozelan ere, gainerako egunetan galdetzen etortzea ere posible izango da.

Ze ordutegi daukazue?

Goizeko 09:30ean hasten gara normalean, eta eguna 18:30-19:00 bueltan amaitzen dugu. Zapatuetan, 10:00etatik 13:00etara eskaintzen dugu zerbitzua. Informazio gehiago gura duenak, Interneteko gunehonetara jo dezake:

[facebook.com/estetikazirkin](https://www.facebook.com/estetikazirkin)

## ESTETIKA ZENTROAK

**Cristina Agirre**  
• apaindegia •

**CA**

- GORPUTZ ETA AURPEGIKO TRATAMENDUAK •
- ARGIZARI BIDEZKO DEPILAZIOA -beroa eta epela-
- DEPILAZIO ELEKTRIKOA •
- DEPILAZIO MEDIKU-LASERRA •
- MAKILAJEA •
- ESKUZKO DRENAJE LINFATIKOA (VODDER) •

Fray Juan de Zumarraga, 9-1B • Tel.: 94 681 42 05 • Durango

**ZIRKIN ESTETIKA**  
Jaione Llanos San Anton

**Z**

- AURPEGI ETA GORPUTZ TRATAMENDUAK
- MANIKURA ETA PEDIKURA
- DEPILAZIOA
- LASER DEPILAZIOA
- BETILEETAKO PERMANENTEA ETA TINTEA ...

Bruno Mauricio Zabala 5  
Tel.: 692 150 173 - Durango

**Ana Camarero**  
• estetika zentroa •

**LA**

- LASER FOTODEPILAZIO MEDIKO-ESTETIKOA
- Aurpegi garbiketa
- Argizari beroz depilatzea
- Argizari epelez depilatzea
- Depilazio elektrikoa
- Gorputz tratamenduak
- Solariuma
- Mikropigmentazioa

Golenkale 16-1.esk • Tel.: 94 681 73 80 • Durango

@anbotokirola

# KIROLAK >

## Orbanik gabeko liga hasiera

Angel Diaz de Cerio entrenatzaileagaz, Zaldua futbol taldeak bikain hasi du liga; orain arteko bost partiduak irabazi dituzte eta sailkapeneko lehenengo postuan daude zaldibartarrak



Joan zen asteburuan partiduen hondarrea lortu zuten garaipenaren gola Ermuaren aurka. Zalua Fuertes

Zalduak denboraldi hasiera paregabea osatu du. Zaldibarko futbol taldeak orain arte jokatutako bost partiduak irabazi ditu eta Lehen erregionaleko liderra da Fruiz taldeagaz batera. Mailari eustea da hasierako helburua, baina taldearen martxa ezinhobea ikusita, beharbada Angel Diaz de Cerio entrenatzaile

leak (55 urte, Elorrio) Elorrion orain urte gutxi lortutakoak amesten hastea ez da larregizkoa.

2008tik 2011ra, Diaz de Cerio bata bestearen atzetik hiru igoera lortu zituen Elorriogaz eta Bigarren erregionaleko taldea Ohorezko mailan kokatu zuen. Gaur egun ere hantxe dihardu lurretakogaz batera.

**Oinak lurrean dituzte eta mailari eustean da Zalduaren aurtengo helburua**

Hala ere, oinak lurrean dituzte bai jokalariek eta bai zuzendaritzak. Mailari eustea da Zalduaren aurtengo helburua, Diaz de Cerioren esanetan: "Lehenengo itzulia amaituta eta denen kontra jokatu ostean ikusiko dugu non gauden. Bitartean, mailari eusteko adina puntu batzea da gure helburua".

Zalduak hamalau gol sartu eta bi bakarrik jaso ditu orain arte. Golegileen artean anitzasuna da nagusi. Aritz Areitioaurtenak eta Javier Castrillok hiru-na sartu dituzte eta Borja Castrillok, Xabier Iraurgik eta Txomin Iturraldekin bina.

Boladan dabilen taldeak, sarritan, haizea ere alde izaten duela ematen du. Joan zen asteburuan Ermuaren kontra jokatutako partidua da horren lekuko. Zalduak 2-1 menderatu zuen Ermua, emozioz betetako amaiera baten ostean. Ermua aurreratu zen markagailuan. Zalduak penalti bidez berdindu zuen eta aurkariari jokalaria bat kendu zioten. Ostean, Ermuari beste jokalaria bi kaleratu zizkionten eta zortzigaz amaitu zuen partiduak. Hala ere, Zalduak 93. minutura arte ez zuen sartu

**Zalduak hamalau gol sartu eta bi bakarrik jaso ditu orain arte**

garaipenaren gola, Txomin Iturraldekin bidez. Asteburuan, sailkapenaren erdian dabilen Plentzia bisitatuko dute.

### Entrenatzaile aldaketa

Zalduak Jose Manuel Loiti entrenatzaileagaz hasi zuen denboraldia. Lehenengo jardunaldiaren ostean, lan kontuak medio, talde utzi behar izan zuen. Diaz de Ceriori eskaini zioten postua: "Nik aurten ez nuen entrenatzaile aritzeko asmorik, baina egia esanda denboraldi hasiera hurreratu ahala gogoaz piztu zitzaidan. Orduan heldu zen Zaldua gidatzeko eskaintza. Zalduaren proiektua ere interesgarria iruditu zitzaidan". ■ J. D.

## Derbian neurtuko dira Elorrio eta lurretako

Elorriok oraindik ez du etxean partidurik irabazi, ezta lurretakok ere etxetik kanpora

Ohorezko mailan aurretik sekula ikusi gabeko derbia jokatuko dute Elorriok eta lurretakok zapatuan Eleizalden. Talde biak sailkapenaren erdian daude, zarpina puntugaz berdinduta.

Elorriok denboraldiko lehenengo garaipena lortu zuen joan zen asteburuan Moraza azken sailkatuaren aurka (0-1). Hiru puntu horiek arnasa eman diote

**lurretakok aurtengoa du estreinako urtea ohorezko mailan**

eta sailkapeneko azkenengo postuetatik irten dira. Etxean oraingoz ez dute garaipenik eskuratu eta Eleizalden jokatutako bi partiduak berdindu egin dituzte Soduperen eta Sondikaren aurka.

Lurretakok aurtengoa du estreinako urtea Ohorezko mailan. Laz, denboraldi borobila osatu eta Maila gorenetik Ohorezko mailara igo ziren. Denboraldi honetan etxetik kanpora jokatutako partidu biak berdindu egin dituzte Deusturen eta Somorrostroren kontra. Orain arteko garaipen bakarra etxean lortu dute, Erandio 1-0 menderatuta. ■ J. D.

## Handien artean finkatu da Bidezabal kadeteetan

Atleta gazteak Espainiako txapelketako finalean aritu dira bigarren urtez segidan

Orain asteburu bi, Bidezabalgoneska kadeteek Espainiako txapelketako finalean parte hartu zuten bigarren urtez segidan. Laz arte inoiz ez ziren klubaren arteko finalerako sailkatu. Aitor Casal Bidezabalgopresidenteak lorpen hori azpimarratu du: "Finalerako sailkatu ziren talderik gehienak hiri handietakoak dira, Bartzelona edo Madrilgoak, esaterako. Gure neskek talde indartsu horien artean lehiatzea lortu dute bi urtez jarraian".

Sailkapen faseetan maila oso ona eman ostean, Castellon (Herrialde Katalanak) jokatutako finalean podiumagaz amestu zuten, baina azkenean zortzigarren postuagaz konformatu behar izan zuten. Leire Gorritxategik xabalina jaurtikitara irabazi eta errekor pertsonala eta txapelketakoa lortu zituen. Irene Perez eta Miren de Regil ere onenak izan ziren altuerajauzian eta pertika-jauzian, hurrenez hurren. ■ J. D.

**laz arte inoiz ez ziren klubaren arteko finalerako sailkatu**

## Bolada txarrari amaiera ematen saiatuko da Kulturala


Liga hasiera indartsuaren ostean, Durangoko Kulturalak galdu egin du azken jardunaldi bietan. Orain aste bi Gernikak hiru puntuak eraman zituen Tabiratik (0-2) eta Zallatik esku hutsik bueltatu zen Kulturala (3-1), joan zen asteburuan.

Ondorioz, laugarren postutik zortzigarrenera jaitsi dira Mikel Agirregomezkortak zuzendutako gizonak. Hala ere, orain laugarren kokatuta dagoen Elgoibar puntu baka-rrera dute.

Asteburuan, bolada txarrari amaiera emateko helburuagaz, Zamudio hartuko du etxean Kulturalak. ■ J. D.

# Azpirik eta Landaburuk estreinaldi gatxa Olazarren

Igor Azpiri eta Jon Landaburu pilotari elorriarrek, Olazar txapelketari ekingo diote; aurkako bikotea, Beitia eta Galarza, sasoi onean dago



Igor Azpiri elorriarra, Olazar txapelketako partidu batean sakea ateratzen. Kepa Aginako

Igor Azpiri eta Jon Landaburu elorriarrek Zaldibarko Olazar pilota txapelketako lehenengo partida jokatuko dute eguenean, 21:30ean. Asier Beitia usansolozarra eta German Galarza galdakoztarra izango dituzte aurkari. Iaz elorriarrek Olazar txapelketako final laurdenetara heldu ziren.

Azpiri eta Landaburu dira sailkapena eskuratzeko faborito. Baina txapelketako antolatzaileetako batek, Enrike Agirrebeitiak adierazi duenez, lan gogorra egin beharko dute, batez ere Galarza sasoi betean dabilelako aspaldian. Galdakoztarrak Donostiako Antiguoko txapelketa irabazi zuen promesen mailan. Bergarako txapelketan, Arrieta bikote zuela, galdu egin zuen, baina txapelketa irabazteko faborito nagusiei (Elezkano I.ari eta Tolosari) hortzak eraku-

## Elorriarrek dira garaipena eskuratzeko faborito nagusiak

tsi ostean (21-22). Tolosak Biharko Izarrak txapelketa irabazi zuen, Santxo gipuzkoarra bikote zuela, Jon Landaburu eta Danel Elezkano garaituta.

Elorriarren esku egongo da partidaren erritmoa ezartzea. Azpiri jokoan sartzea litzateke gakoa, erritmoa ezarri eta aurrealdean diferentzia markatuz. Landaburu eta Galarza atzekaldean berdintsu ibiliko dira; biek euren ematen badute, joko luzea eta borrokatuaz gozatzeko aukera legoke.

Azpiri-Landaburu bikoteak irabaziz gero, eskilarako siste-

man multzoko liderren kontra jokatuko beharko luke hurrengo partidua. Multzoko liderren aurka irabazita, final laurdenetarako sailkatuko litzateke bikote elorriarra.

Jauregi gipuzkoarrak eta Oronoz nafarrak ere eguenean jokatuko dute partida lau t'erdian. Lehia parekatuta dago.

## Iazko emaitza hobetu guran

Iazko gazi-gozoa gainditu nahian aterako dira elorriarrek kantxara. Izan ere, iazko Olazar txapelketako final laurdenetan elorriarrek Elezkano I izan zuten aurkari, orduan Gorrotxategi bikote zuela. Azpiri eta Landaburuk 5-22 galdu zuten partida hura. Historia gutxiko partida izan zen, bikote irabazlea hasieratik atakean indartsu azaldu baitzen. ■ A. Elordi / J. Derteano

zeharkatu ostean, Ureta inguruko baserriak bisitatuko dituzte. Ibilaldian parte hartzeko honako e-mailean eman daiteke izena: [artarrai@euskalnet.net](mailto:artarrai@euskalnet.net).

Domekan, 12:30ean, Artarraik antolatu duen argazki rallyko ebazpena jakinarazi eta sari banaketa burutuko dute Lobiako kulturagunean. Urriaren 24an, 19:30ean, berriz, Miguel Angel Ramos eta Maria Rosario Arribalagak Baltistanen (Kaxmir iparraldean) bizitako esperientziak kontatuko dituzte Lobiako. Urriaren 27an, Bidarraiparlara (1049 metro) mendi irteera antolatu dute. ■ J. D.

# Mendiari lotutako irteera eta hitzaldiak Ermuan

Ermuko Artarrai mendi taldeak antolatuta, mugarriak bisitatzera irtengo dira bihar

Mallabia, Zaldibar eta Eibar aldera Ermuak dituen mugarriak ikusiko dituzte sei bat orduko ibilaldi lasaian. Bihar, 08:00etan, plazatik abiatu eta herriko mugarriak bisitatuko dituzte. Mendia, kirola eta kultura batzen dituen ekitaldi sorta antolatu du Ermuko Artarrai mendi taldeak.

Ibilaldian, Urko mendira (791 metro) igoko dira eta San Lorenzo eta Eitzaga auzoak

## Urriaren 27an Bidarraiparlara mendi irteera antolatu dute

## ADITUAREN TXOKOA

Carlos Garcia  
Areto futbola



## Areto futbol maratoiak

Maiatz inguruan, hainbeste partiduren eta entrenamenduren ostean denboraldia ofizialki amaitzen denean, jokariak fisikoki eta mentalki nekatuta egoten dira. Hala ere, badira hitzordu batzuk jokari askori atsedena atzeratu arazten diotenak: areto futboleko maratoiak.

Durungaldean, ekaineko asteburuak halako txapelketez beterik egoten dira Mallabian, Berrizen, Durangon eta Zaldibarren. Areto futboleko jokariak, futbolekoek, jokari ohiek, areto futbol zaleek..., taldeak sortu, izena eman eta finalera heltzen badira asteburu batean bost partidu jokatu ahal dituzte. Antolakuntza askotariko elkarten artean egiten da, klubetatik hasi eta gurasoen elkarteetaraino.

Mallabiko eta Durangoko San Faustoko torneoak tradizio eta garrantzia handiagoa duten Berrizko eta Zaldibarkoekin tartekatzen dira. Parte-hartzaile asko izaten dituzte eta zaleek bete egiten dituzte harmailak. Nahiko lukete klub askok halako ikusle kopurua ligako partiduetan.

Baina, zergatik izaten dute hainbestearainoko arrakasta? Beharbada areto futbolariek bakarrik eskaintzen dituen ezaugarriak badute horretan zerikusia: esaterako, jokariak jokoan eta baloiarekin duten etengabeko parte-hartzea. Edo, normalean han-hemenkako taldeetan sakabanatuta dauden lagunak, koadrilakoak sarritan, batzeko eta elkarrekin jokatzeo eskaintzen duten aukera. Jokari ohientzako ere tentagarria izan daiteke. Areto futboleko maratoiak xarma berezia dute, hori da egia. Oraindik bederatzita bat hilez itxaron behar dugu berriro bueltatu aurretik, baina eutsi gogoari, etorriko dira.

*\*Erredakzioan itzulia*

# Bigarren txapela gura dute Beitia eta Garitak

San Fausto Zesta Punta txapelketako finala jokatuko dute zapatuan Durangon



Beitia eta Garitaonandia, iazko finalean.

Zapatuan, 18:00etan, San Fausto Zesta Punta txapelketako finala jokatuko dute Berriatuak eta Mutrikuk Durangoko Ezkurdi Jai Alai frontoian.

Alberdi eta Galalde berriatuarek, Beitia eta Garita ordezkari mutrikuarren aurka neurtuko dituzte euren indarrak. Partidu gogorra aurreikusten da eta faborito argirik gabea. Gotzon Garitaonandia durangarra aurtan ere finalera heldu da Beitia-ekin batera, Mutriku ordezkatzuz, finalaurrekoetan Gasteiz

garaitu ostean (30-21). Iaz eurek jantzi zuten txapela eta aurtan beste hainbeste egiten saiatuko dira. Berriatuak, aldiz, Noain menperatu zuen finalerdietan (30-20).

Alberdi, Garita eta Beitia Ameriketako Estatu Batuetan zetalari profesional arituak dira urte askoan.

Finalaren aurretik atariko partidu bat jokatuko dute Durangoko pilotalekuan: Txirtu eta Zabala, Zuloaga eta Ubillaren aurka ariko dira. ■ A.E. / J.D.



# Iaz atarian geratu ostean, igoera gura dute Sapuberri eta Dantzarik

Bi taldeek orain arteko hiru partiduak irabazi dituzte areto futboleko Lehen erregionalean

**A**reto futboleko Lehenengo erregionalean ez dute sorpresarik gura Sapuberri eta Dantzarik. Biek ala biek igoera dute helburu eta indartsu ekin diote ligari. Orain arteko hiru partiduak irabazi dituzte eta igoera postuetan daude. Iaz talde biak igoeraren atarian geratu ziren.

Sapuberriek lehenengo itzuli handia osatu zuen eta hirugarrenarekiko zortzi puntuko abantailagaz ibili zen. Bigarren itzulian, lesioak eta bestelako kontuak medio, asko jaitsi zuten errendimendua eta azken uanean igoera zein promozio postuetatik kanpora geratu ziren. Aurten

jokalari bi fitxatu dituzte taldea indartzeko. Biak berriztarrak dira: David Lobato (20 urte) eta Roberto Rodriguez (30 urte). Lobatok Eibarko beheko mailtan jokatu du futboleant; baita Durangoko Kulturean ere. Belauneko arazoengatik utzi zuen futbola eta aurten Sapube-

rrigaz dabil. "Aste hauetan argi utzi du zergatik ibili zen Eibar lako taldeetan. Detaile txikiak ikastea falta zaio, baina asko emango digu", adierazi du Jelko Uribe taldeko entrenatzaileak. Rodriguez ere oso jokalaria balioetsua dela azaldu du, taldeari emango dion esperientzia eta seriotasunagatik.

Dantzarik Sapuberriren kontrako errendimendua eskaini zuen iaz. Behetik gora egin eta igoera promozioa jokatu zuten. Promozioan Romotarrak taldea kanporatu eta igoera ospatu zuten. Hurrengo egunetan etorri zen albiste txarra. Maila goreneko talde batek igotzeari uko egin ziola-eta, federazioak jakinarazi zien ezingo zutela igo.

**Dantzarik Abadiño**  
Gaztetxieren kontrako derbia jokatu du

Oro har, iazko blokeari eutsi diote aurten. Asteburuan Dantzarik Abadiñoako Gaztetxieren kontrako derbia jokatu du. Partidu gatxa izango du Sapuberri. Abadiñoak ere ez dabilta kamuts. Bosgarren daude, goiko postuen borrokan murgilduta hauek ere.

Denboraldia kaskar hasi duena Gu Lagunak taldea da. Orain arteko hiru partiduak galdu dituzte durangarrek. Elorrioko B, hiru puntugaz, behealdean dago, baina jaitziera postuetatik kanpora. ■ J. D.



Dantzari taldeak iazko blokeari eutsi dio aurten. Kepa Aginako

## Tabirako Baquek indartsu hasi du denboraldia

Gizonen taldeak hirutik hiru irabazi ditu; gazte mailako neskek ere dena irabazi dute

Mailari eusteko latz sufritu zuen iaz Tabirako Baqueko gizonen saskibalo talde nagusiak. Denboraldi hartako sufrimendua akulu lez erabilia, aurten etxeko lanak ahalik eta arinen egiteko prest daude. Orain arte jokatuak hiru partiduak irabazi egin dituzte eta denak hamar puntu baino gehiagoko aldeagaz. Ondorioz, lehenengo mailako liderrak dira, Mondragon Unibertsitatea eta Lizuan.com taldeekin garaipenetan berdinduta.

Asteburu honetan Fundacion 5+11 taldearen aurka jokatu dute Gasteizen. Tomas de Castroren mutilek irabazteko

partidua dute. Gasteizko taldeak orain arteko hiru partiduak galdu ditu eta denak hogeit hamar baino gehiagoko aldeagaz.

**Asteburuan Fundacion 5+11 taldearen aurka jokatu dute**

### Neskek lidertza jokoan

Azpimarratzeko moduko liga hasiera egin dute Tabirako Baqueko gazte mailako neskek ere. Lau partidu jokatu eta laurak irabazi dituzte. Beste hainbeste egin du Azpeitiako Movilquick taldeak. Asteburu honetan bietako baten martxa apurtuko da, elkarren kontra jokatu dutelako. Zapatuan, 12:00etan, hasiko da partidua Landako kiroldegian. ■ J. D.

Partiduak hamar puntu baino gehiagoko aldeagaz irabazi dituzte

## Bizikletaren inguruko festan 170 txirrindularik parte hartu zuten



Iurretako Txirrindulari Elkarteak Bizikleta Festa antolatu zuen orain asteburu bi San Miguel jaien barruan, eta 170 lagunek parte hartu zuten. Iurretako auzoetan zehar ibilbide bi antolatu zituzten txirrindularitza sustatu asmoz. Ostean, hainbat sari ere zozkatu zituzten. Antxon Perezek (irudian) irabazi zuen zozketako sari nagusia: kirol materiala erosteko balea. Celia Perezi eta Nagore Correari ere sariak egokitu zitzaizkien.

## Agenda

### FUTBOLA

#### HIRUGARREN MAILA

##### Durangoko Kulturala - Zamudio

Zapatuan, 17:00etan, Tabiran OHOREZKO MAILA

##### Elorrio - Iurretako

Zapatuan, 16:00etan, Eleizalden

#### LEHENENGO ERREGIONALA (gizonak)

##### Abadiño - Errigoiti

Zapatuan, 17:00etan, Astolan HIRUGARREN ERREGIONALA

##### Zaldia B - Lemoaberri

Zapatuan, 16:00etan, Solobarrian

##### Iurretako B - Iberlanda

Zapatuan, 16:00etan, Larrakozelain

#### LEHENENGO ERREGIONALA (emakumeak)

##### Iurretako -

##### Basauritar Emakume

Zapatuan, 18:15ean, Larrakozelain

##### Elorrio - Derio

Zapatuan, 18:00etan, Eleizalden

### ARETO FUTBOLA

#### EUSKAL LIGA

##### Sasikoa - Debabarrena

Zapatuan, 15:30ean, Landako kiroldegian

##### Elorrioko Buskantza - Eskoriatza

Zapatuan, 18:00etan, Elorrioko udal kiroldegian

#### MAILA GORENA

##### Sasikoa B -

##### Atletismo Ortuella

Zapatuan, 19:45ean, Landako kiroldegian

#### LEHENENGO ERREGIONALA

##### Gu Lagunak - Zuentzat

Zapatuan, 17:15ean, Landako kiroldegian

##### Abadiñoako Gaztetxie - Dantzari

Zapatuan, 17:00etan, Traña-Matienako kiroldegian

#### BIGARREN ERREGIONALA

##### Mendibeltz -

##### Saltzalleak B

Zapatuan, 18:30ean, Landako kiroldegian

##### Elorrioko C -

##### Racing Tolosto

Zapatuan, 14:50ean, Elorrioko udal kiroldegian

### ERRUGBIA

#### OHOREZKO B MAILA

##### D.R.T. - Hospitalet

Zapatuan, 15:00etan, Arripausetan

### SASKIBALOIA

#### LEHENENGO ERREGIONALA

##### Anbotopeko -

##### Aguilas Salesianos

Barikuan, 19:50ean, Tabiran

### PILOTA

#### OLAZAR TXAPELKETA

##### Binaka:

##### - Azpiri - Landaburu /

##### Beltia - Galarza

##### Lau t'erdian:

##### - Jauregi - Oronoz

Urriaren 25ean, 21:30ean, Zaldibarko pilotalekuan

### MENDIA

#### DURANGALDEKO MARATOI

#### ERDIA

##### Urriaren 28an,

##### 10:00etan, Urkiolan

Izen-ematea:

www.bidezabal.com



## Durangaldeko baserri-paisaien bereizgarriak kontserbatu gura dituzte

Urkiola Landa Garapen elkarteak bultzatuta, eskualdeko paisaien bereizgarri esanguratsuenak identifikatzen ari dira

Urkiola Landa Garapen elkartearen ekimenez, Durangaldeko baserri-paisaien inguruko azterketa egiten ari dira foro zabaletan. Azterketaren helburua paisaia horiek kontserbatzeko plangintza sortzea da. Baina, horretarako, inguru-ene bereizgarri esanguratsuenak identifikatzen ari dira parte-hartzaileak. Martitzenean egin zuten lehenengo batzarra, eta azaroaren 6an elkartuko dira berriro. Berrizko kultur etxean egingo dute,

19:00etan hasita. Adierazi dutenez, Bizkai-ko eta Gipuzkoako beste zortzi elkarte ere badabilta lanketa berean.

Martitzeneko saioan hainbat ariketa egin zituzten. Lehenengo, partaideek paisaiari buruz daukaten kontzeptua bateratzen saiatu ziren. Oinarria finkatu zuten, beraz. Gero, Durangaldeko datu orokor batzuk plazaratu zituzten arduradunek. Batzarra amaitzeko, fitxa bat banatu zuten. Horrela, parte-hartzea erraztu gura dute,

eta etxerako lan legez eroan zuten guztiek. Bakoitza eskualdeko leku batera joan eta paisaia hori aztertuko du fitxaren laguntzaz. Geologia, klima, ura, lurzorua, landaredia, faktore sentimentalak... Hainbat esparrutik baloratuko dute leku hori.

### Bigarrenean, hausnarketa

Ariketagaz jasotakoa, eztabaida eta hausnarketarako erabiliko dute bigarren batzarrean. Gaur egungoaz gainera, etorkizunean zelako paisaiak egon ahalko diren aurrekustea izango da zereginetako bat. Antolatzaileek azaldu dutenez, lehen sektore ekonomikoak eduki duen eragina ere aztertuko dute, besteak beste.

Lehenengo batzarrean parte hartu ez dutenek ere eman ahal dute izena bigarreneko. Horretarako, 686 738 152 telefono zenbakia eta [paisaia.atl@paisaia.com](mailto:paisaia.atl@paisaia.com) helbide elektronikoak erabiltzeko eskatu dute arduradunek. Gainera, [www.oizegin.com](http://www.oizegin.com) webgunean lehenengo saioko informazioa eskegi dute, eta ariketa egiteko fitxa ere bertan dago eskuragarri. Antolatzaileek ekarpena eskertu dute, eta esan dute parte-hartzea garrantzitsua dela ahalik eta ikuspegi zabalena lortu eta erabakiak hartzeko.

Azterketaren helburua baserri-paisaia horiek kontserbatzeko plangintza sortzea da

Ariketagaz jasotakoa, eztabaida eta hausnarketarako erabiliko dute bigarren batzarrean



# AMETS HANDIAK

Prezio  
txikiak

Xehetasun txiki guztiak zainduz,  
zure oporrak izugarriak izango dira.

Utzi irudimenari hegan egiten, eta  
zure ametsek nahi duzun lekura  
eraman zaitzate.



## Londres

Abenduan, 4 egun /3  
gau, Express By Holiday  
Inn Wandsworth Hotela.  
Gosariekin.  
Bilbotik hegazkina.

**570€**

## Roma

Abenduan, 4 egun /3  
gau, Fleming Grand  
Hotela 4\*. Gosariekin.  
Bilbotik hegazkina.

**560€**

## Punta Cana

Abenduan, 9 egun /7 gau, Riu  
Naiboa Hotela 4\*. Dena barne.  
Madriletik hegazkina.

**845€**

## Lanzarote

Urtarrilean, 3 egun /2 gau.  
Las Gaviotas Apartameduak.  
Bilbotik hegazkina.

**260€**

## Cantabria

3 egun /2 gau, Posada la  
Venta de Quijas Hotela.  
Gosariekin eta  
Itsaski-jana batekin.

**98€**

## Almería

Azaroan, 7 egun /6 gau,  
Citymar Bellavista Hotela 4\*.  
Mantenu erdia.

**160€**

## Costa de la Luz

Urritik - Abendura, 7 egun /6 gau,  
Complejo el Remo Hotela 3\*.  
Ostatu bakarrik.

**195€**

## Deba

Abendurarte, 2 egun /gau  
1, Aisia Deba Hotela 3\*.  
Mantenu erdia.

**315€**

**EROSKI** bidaiak

Ametsetan? Egizu hegan!



[viajeseroski.es](http://viajeseroski.es)







# AGENDA >

> ANBOTOKo agendan ezer iragarri gura baduzu, [agenda@anboto.org](mailto:agenda@anboto.org) helbidera idatzi edo 94 623 25 23 telefonora deitu egiguzu, eguzten eguerdiaren aurretik.



Urriaren 26an, 22:00etan,  
Elorrioko Arriolan

## PERRO QUE MUERE NO LADRA

Portugalgo Compañía Chapito taldearen eskutik, urriaren 26an, *Perro que muere no ladra* antzezlana egongo da ikusgai Elorrian. Hiru antzezte taula gainean, eta komedia "oso beltza" izango da, "momentu bortitzak eta makabroak" dituena.

### ANTZERKIA

#### BERRIZ

>> Urriaren 20an, Txalo taldearen *Kafe txinatarra*, 20:00etan, kultur etxean.

>> Urriaren 26an, Glu Glu taldearen *Arratoitxo pinpirina*, 18:00etan, kultur etxean.

#### DURANGO

>> Urriaren 25ean, Companhia do Chapito taldearen *Perro que muere no ladra*, 20:00etan, San Agustín kulturgunean.

#### ELORRIO

>> Urriaren 26an, Companhia do Chapito taldearen *Perro que muere no ladra*, 22:00etan, Arriolan.

### AURKEZPENA

#### DURANGO

>> Urriaren 26an, Urko Egaña *11 kantatzeko* DVDa aurkezten, 19:30ean, Hitz liburutegian.

### DANTZA

#### DURANGO

>> Urriaren 21ean, AIKO erromeria, erromeria ibiltaria, 18:00etan, Plateruenean.

### ZORNOTZA

>> Urriaren 19an, Producciones Viridiana taldearen *Habibi*, 21:00etan, Zornotza Aretoa.

### EKITALDIA

#### DURANGO

>> Urriaren 26an, Plateruenean zortzi urte, *urteuren jaialdia*, 20:30ean, Plateruenean.

### ERAKUSKETA

#### DURANGO

>> Urriaren 5etik 28ra, *Minutalariak, kale argazkilarik* erakusketa, Arte eta Historia Museon.

>> Urriaren 5etik 14ra, XII. Durango Hiria lehiaketako margolanen erakusketa, Arte eta Historia Museon.

>> Urriaren 11tik, *San Fausto 2012 kartel lehiaketara* aurkezturiko lanen erakusketa, Arte eta Historia Museon.

#### ELORRIO

>> Urriaren 19an, Iñaki Zorrakin Altuberena *ilustrazioen erakusketa*, Iturrin.

#### GARAI

>> Urriaren 20 eta 21ean, *Erdi Aroko burukoak: osagarri bat*

*baino gehiago*, 12:00etatik 14:00etara eta 17:30etik 19:30era, San Juan elizan.

#### IURRETA

>> Urriaren 21ean, *Lihoaren lanari buruzko tresneria eta erabileraren erakustaldia*, 11:00etatik 14:00etara, Ibarretxe kultur etxean.

### JAIK

#### DURANGO

>> Urriaren 19an, Gurutze Gorriaren *ate irekien jardunaldiak*, 17:00etan, Ezkurdin. *Tortilla txapelketa*, 18:00etan, txosnaguneean. *Euskal kantak*, 20:00etan, Plateruenean. *Kilaue, Las Culebras eta Nuevo Catecismo Catolico*, 22:30ean, txosnetan. Bertsolariak (Maialen Lujanbio, Jon Maia, Miren Amuriza eta Igor Elortza), 22:30etan, San Agustín kulturgunean. *Enkore eta Su Ta Gar*, 23:00etan, Landakoguneean.

>> Urriaren 20an, *Diana txistulariekin*, 07:00etan. *Zezenak dira dultzaineroekin*, 07:30ean. *Kalejira txistulariekin*, 11:00etan. *Nekazal azoka*, 11:00etan, Merkatu plazan. *Skate eskola Zutundu*, 11:00etatik 14:00etara, Ezkurdin. *Umeentzako mozorro tailerra*, 11:00etan, Andra Marian.

*Graffiti lehiaketa*, 12:00etan, Ezkurdin. *Txiri-txiri* taldea Alde Zaharretik, 12:00etan. *Durango-ko Orfeoiekin kalejira*, 12:00etan. *Haurren mozorro desfilea eta sari banaketa*, 13:00etan, Andra Marian. *Gazte poteo animatua*, 13:00etan. *Hirugarren adinekoentzat bazkaria*, 14:00etan, Landakoguneean. *Gazte bazkaria*, 15:00etan, txosnetan. *Errugbi partida*, 15:00etan. Egin *Astronomia tailerrak*, 16:00etan, Zuhatzola parkean. *Xake txapelketa*, 16:30etik 20:30etara. Toricos de la Navarrería *entzietxo txikia*, 16:30etan, Santa Anan eta Alde Zaharretik. *Koadrilen arteko olinpiadak*, 17:00etan, txosnaguneean. *Haurrentzako zezen ikuskizuna*, 17:30ean, barraka lekuan dagoen zezen plazan. **XXIX. San Fausto zesta punta txapelketaren finalak**, 18:00etan. *Kalejira*, 18:30ean, Alde Zaharretik. *V. patata tortilla txapelketa*, 18:30etan, Merkatu plazan. *Graffiti lehiaketaren sari banaketa*, 18:30etan, Ezkurdin. *Hipo eta Tomax pailazoak*,

19:00etan, udaletxeke plazan. *Desfilea eta sari banaketa*, 20:00etan, txosnaguneean. Ondoren, *elektrotxaranga*, 20:00etan, Alde Zaharretik. **Arte Bizia**, 20:00etan, Alde Zaharretik. **Klasikoen bertsoak**, 20:00etan, Andra Marian. **Behaketa astronomikoa**, 21:00etan, Zuhatzola parkean. **Indarkeria sexistatik gabeko txokoa**, 21:00etan, txosnaguneean. **Suzko zezena**, 21:00etan, Ezkurdin. **Afu eta Luhartz**, 22:30etan, Landakoguneean. **Joseba Sakristan eta Oihan Vega**, 23:00etan. **La jungla orkestra**, 23:00etan, Ezkurdin. **Alkoholemia kontrolaren stand informatiboa eta testing Ai Laket programa**, 00:00etan, txosnaguneean.

>> Urriaren 21ean, *San Fausto Calva txapelketa*, 09:00etan, Murueta Torren. **Haur parkea**, 10:00etatik 14:00etara, Ezkurdin. **Faunolandia tailerrak**, 10:00etatik 14:00etara. **Futbito txapelketa**, 10:00etatik 14:00etara. **Zuhaitz landaketa**, 11:00etan, udaletxeke plazan. **Kalejira txistulariekin**, 11:00etan. **Bizikletaren jai familia osoarentzat**, 11:30ean, Andra Mariatik. **I. Padel txapelketaren finalak**, 12:00etan, Landako kirolguneean. **Zatoz ponian ibiltzera**, 12:00etan, Landako parkean. **Arku tiroako gunea**, 12:00etatik 14:00etara, Landako parkean. **Herri kirol erakustaldia**, 12:30ean, Ezkurdin. **3x3 futbito txapelketa**, 16:00etatik 20:00etara, Merkatu plazan. **Kondaira ludoteka**, 16:00etatik 19:30era, Ezkurdin. **Faunolandia tailerrak**, 16:30etik 19:30era, Ezkurdin. Markelñe taldearen **Zoo zoom**, 17:30ean, Santa Anan. **Haurrentzako zezen ikuskizuna**, 17:30ean, barraka lekuan dagoen zezen plazan. **Voces del Ebro** taldearen jotak, 18:00etan, Andra Marian. **Kalejira Sama Siku fanfarria**, 19:30ean, udaletxeke plazatik Landako skate pistan.

*saioa*. (17:30ean hiru-lau urtekoentzat; 18:00etan bost urtetik gorakoentzat). **Patricia Picazoren helduentzako Cicatrices** ipuin kontalaritza saioa, 20:00etan, herri bibliotekan.

### MUSIKA

#### DURANGO

>> Urriaren 25ean, *Kantulagun*, 20:00etan, Plateruenean.

### ZINEMA

#### DURANGO

##### Zugaza

#### Lo imposible

Zuzendaria: J.A. Bayona  
barikua 19: 19:00/22:00  
zapateria 20: 19:30/22:30  
domeka 21: 19:30/22:30  
astelehena 22: 19:00/22:00  
martitzena 23  
(ikuslearen eguna): 20:00

#### Umeen zinema

#### Las aventuras de Tadeo Jones 2D

Zuzendaria: Enrique Gato  
zapateria 20: 17:00  
domeka 21: 17:00

#### Zineforuma

#### El skylab

Zuzendaria: Julie Delpy  
eguna 25: 20:30

#### ELORRIO

##### Arriola

#### El legado de Bourne

Zuzendaria: Tony Gilroy  
zapateria 20: 22:30  
domeka 21: 20:00  
astelehena 22: 20:00

#### Umeen zinema

#### Brave

Zuzendaria: M. Andrews eta B. Chapman  
domeka 21: 17:00

#### ZORNOTZA

##### Zornotza Aretoa

#### El artista

Zuzendaria: Fernando Trueba  
domeka 21: 20:00  
astelehena 22: 20:00

#### Umeen zinema

#### Piratas

Zuzendaria: P. Lord, J. Newitt  
domeka 21: 17:30

URRIKO AGENDA	
IURRETAKO HERRI BIBLIOTEKA 19an, Ipuin kontalaria, 17:30 (3-4 urte), 18:00 (5 urtetik gora) 20:00 Helduen ipuin kontalaria: Cicatrices 23an, Haurren irakurketa kluba, 17:00-17:45 (8-10 urte), 18:00-18:45 (11-12 urte) 24an, Azalerako ipuinak, 17:00 (0-18 hilabete), 18:00 (18-36 hilabete)	<b>19</b> <b>22</b> <b>24</b>
20,21,25 IURRETA TXIRRINDULARI ELKARTEA 09:30 Hainbat ibilbide (65-80 km) 27,28 28an, 09:30 Kofradietatik XXIV. Ibilbidea (MTB)	
ONDAREAREN EUROPAKO JARDUNALDIK 11:00-14:00 Erakusketa zabalik: "Lihoaren lanari buruzko tresneria eta erabileraren erakustaldia" 12:30 Hitzaldia: "Lihoa eta euskal emakumea" Iurretako Dantza taldearen emanaldia	<b>21</b>
22 DURANGOKO AMANKOMUNAZGOA Senderismoa: "Arditurriko bidegorria" 09:45 Irteera: Korreosko autobus paradan Izen ematea: Tel.: 94 620 05 46 - 94 620 18 60	<b>22</b>
ANDEREBIDE EMAKUMEEN ELKARTEA 09:00 "La Arboleda eta Zubi Esekira" txangoa eta ohiko bazkaria: babarrunak Irteera: Maspe paradan. Izen ematea: urriaren 4tik aurrera	<b>27</b>
OHARRAK Igeriketa, euskara, UEU eta musika ikastaroentzako dirulaguntzak eskatzeko epea Beldur Barik 2012 Lehiaketa. Oinarriak: <a href="http://www.beldurbarik.org">www.beldurbarik.org</a> "Refuerzo del suelo pelvico" eta "Biodantza" ikastaroetarako izen emateko epea	

### KONTALARIA

#### DURANGO

>> Urriaren 19an, Virginia Imazen *Historias de Euskal Herria* helduentzako kontalaritza saioa, 20:00etan, udal liburutegian.

#### IURRETA

>> Urriaren 19an, Maite Frankoren *umeentzako ipuin kontalari*

ZORION AGURRAK >

zorionak@anboto.org • Eguazteneko arratsaldeko 14:00ak arteko epea



Zorionak, **Miguel**, atzo 28 urte! Ondo bizi izandako orainak, iragana zoriontasunezko amets bihurtzen du, eta etorkizuna esperantzaz bete! Ikaragarri gurutzut, Nanu!



Urriaren 11n **Unaxek** 10 urte bete zituen. Zorionak, milaka musu eta besarkada bero bat, aita, ama eta Uxian partez!



Zorionak, **Erin**, pasa den domekan urteak bete zenituelako. Zorionak Apatako familiaren partez! Musu handi-handi bat sorgintxu!



Zorionak, **Malen** eta **Jone**! Ondo pasau! Oin arte moduen jator-jator jarraitu! Mosu handi bat familia osuen partez!



Asteartean **Aratzek** 4 urte bete zituen. Zorion eta musu erraldoi asko gure itsas zabaleko kapitain piratarentzat!



Zorionak, **Ibai**! Urriaren 21ean gure txikitxoak 3 urte beteko ditu. Musu potolo-potoloak Jokin, aita eta amaren partez!



Etxeko mutil handiena eta guapoena urriaren 23an 7 urte beteko ditu. Zorionak, **Jokin**! Musu handi bat Ibai, ama eta aitaren partez!



Zorionak, **Iratxe**, **Xixili** eta **Katalin**! Zuri be zorionak, Eujenio, eta belarritik tirakada bat! Urrien aita pozik egongo da, ezta?



Zorionak, **Aner**, urriaren 21ean 9 urte egingo dituzu-eta. Berrizko atezain eta skater onena zara! Mosuak aita, ama eta Aritzaren partez!



**Martin Amilibia Salterainek** urriaren 24an urteak beteko ditu. Zorionak zure laugarren urtebetetzean! Mosu asko eta ondo pasau!



Gaur txokolate gozoa egingo digu argazkiko neska *presiosa* honek. Zorionak, **Iratxe**, eta patxo handi bat familia osoaren partez!



Axpeko **Saioa Arrasatek** urriaren 17an, 12 urte bete ditu. **Ander Arrasatek**, berriz, 10 egingo ditu urriaren 21ean. Zorionak Axpetik eta Lekitxotik!



Urte bat gehiago betetzen duzun egun maitagarri honetan, lau gutxiago betetzen dituzula ematen du! Zorionak familiaren partez!



Zorionak, **Naiara**! Urriaren 23an 10 urte beteko dozuz. Mosu potolo pila familiaren partez, batez ere Maialen, Julen eta Ioneren partez!



Hamabostero, jasotako zorion-agur guztien artean tarta bat zotz egingo dugu. Parte hartzeko, bidali kontakturako datuak e-posta bidez.

Jose Antonio Agirre, 4 - 94 620 08 69  
Avda. Montevideo, 1 - 94 620 43 83

BOTIKAK >

- Barikua, 12**  
09:00-09:00  
• Balenciaga (Ezkurdi plaza 8 - Durango)
- Zapatua, 13**  
09:00-09:00  
• Navarro (Artekale, 6, Durango)  
09:00-13:30  
• Urizar (Gabiola 2 - Berriz)  
09:00-22:00  
• Jaio-Olabarrieta (Erreka 6 - Elorrio)  
09:00-14:00  
• Irigoien (Bixente Kapanaga 3 - Iurreta)
- Domeka, 14**  
09:00-09:00  
• Campillo (Montebideo 24- Durango)
- Astelehena, 15**  
09:00-09:00  
• Sagastizabal (Askatasun Etorb. 19 - Durango)
- Martitzena, 16**  
09:00-09:00  
• Gaztelumendi (J.A. Abasolo 2 -Durango)  
09:00-22:00  
• Urizar (Gabiola 2 - Berriz)
- Eguaztena, 17**  
09:00-09:00  
• De Diego (Intxaurren 22 - Durango)
- Eguena, 18**  
09:00-09:00  
• Mugica (Andra Maria 9 - Durango)  
09:00-22:00  
• Larrañaga-Balentiaga (Berrio Otxoa 6 - Elorrio)

TELEFONO INTERESGARRIAK >

SOS Deiak .....	112
DYA .....	94 620 28 00
Gurutze Gorria .....	94 681 09 49
Osakidetza .....	94 600 72 00
Ertzaintza .....	94 466 93 00
Suhiltzaileak .....	112
<b>GARRAIOAK</b>	
Euskotren .....	902 54 32 10
Bizkaibus .....	94 448 40 80
Pesa .....	902 10 12 10
Continental Auto.....	945 28 64 66
<b>TAXIAK</b>	
Abadiño .....	94 681 44 70
Matiena .....	606 45 99 88
Durango Geltokia .....	94 681 10 01
Elorrio Geltokia.....	94 682 00 40
J.L. Uriarte .....	670 40 20 02
I. Estebez .....	670 67 82 73
M Galeano .....	670 40 93 30
Iurreta .....	94 620 15 65
Taxi auzunea.....	688 61 86 90
<b>UDALAK</b>	
Abadiño .....	94 621 55 30
Atxondo .....	94 682 10 09
Berriz.....	94 682 45 84
Durango.....	94 603 00 00

Elorrio .....	94 658 27 12
Garai .....	94 681 63 93
Iurreta .....	94 620 12 00
Izurtza .....	94 681 35 48
Mallabia.....	943 17 14 61
Mañaria .....	94 681 89 98
Otxandio .....	945 45 00 20
Zaldibar .....	94 682 70 16
<b>UDALTAINGOA</b>	
Abadiño .....	94 621 55 33
Berriz.....	94 682 40 36
Durango.....	94 603 00 10
Elorrio .....	94 682 02 18
Iurreta .....	94 620 08 88

EGURALDIA >

12	14°	BARIKUA	
12	15°	ZAPATUA	
11	16°	DOMEKA	
11	21°	ASTELEHENA	
12	21°	MARTITZENA	

AZOKA-BASERRITIK PLAZARA >



**Abadiño (Traña-Matiena)** - Eguaztenetan 10:00etatik aurrera  
**Durango** - Zapatu goizetan  
**Zornotza** - Domeka goizetan

ASTEKO SALNEURRIAK:

Letxuga .....	0,80 euro
Tomatea .....	3,50 euro/kg
Piperrak .....	1,70 euro/doz
Bainak .....	5 euro/kg
Kalabazina .....	1,80 euro/kg
Azenarioak.....	1,50 euro/tx
Arraultzak .....	3,60 euro
Idiazabal gazta.....	16,50 e/kg
Gari ogia.....	3,30 euro



# “Emakumeek janzkera mantenduzuten, nahiz eta eliza kontra eduki”

‘Euskal janzkera historian zehar’ berbaldia emango du Amaia Mujikak, bihar, Garaiko San Juan elizan

**M**argolanetan, antzinako testuetan... Badaude arrasto batzuk, baina Erdi Aroko janzkera zelakoa zen jakiteko informazio gutxi dagoela adierazi du Amaia Mujika museologoak. Argi daukana zera da, Euskal Herrian berezko janzkera izan zutela Erdi Aroan. Janzkerek orduko ohitura eta istorio ugari kontatzeko aitzakia emango dio Mujikari, bihar, 12:30ean, Garaiko San Juan elizan.

**Euskal janzkeraz berba egin daiteke? Inguruko janzkeretatik bereizten zen?**

Gaur egun bezala, gauza bat da norberak janzten duena eta beste bat modak esaten duena. Erdi Aroan dirudunek azken modako jantziak ekartzen zituzten Flandetik, Italiatik edo Alemaniatik. Herriko jendea apalago janzten zen. Baserri askotan lihozko arropak egiten ziren. Esan dezakegu euskal janzkera herrikoia Erdi Aroan egiaz euskalduna dela eta elementu batzuk dauzkala bakarrik Euskal Herrikoak direnak.

**Zeintzuk dira elementu berezkoak?**

Emakumezko janzkeran ezaugarri bi daude: burukoa eta amantala. Eta bi gauza horiek gure amamen garaia arte egon dira. Gizonezkoen janzkeran ez dago horrenbeste diferentzia, modaren arabera janzten ziren. Euskaldunok libertate batzuk izan genituen ez ginelako basailuak, noblearen azpikoak... Legislazioak pribilegio batzuk ematen zizkigun eta, esaterako, gizonek armak eroan ahal zituzten. Espainian, armak nobleek bakarrik eroan ahal zituzten; hemen, denek.

**Andren burukoari buruzko erakusketa dago Garain. Esangura berezia zeukan?**

Asko idatzi da esangura horretaz, baina jakin gurako nuke nik! Esan da adarrak modukoak zirenez



sexuarekin zeukata zerikusia, baina buruko mota asko daude. Tontordun burukoa emakumeen janzkeraren ezaugarri bat zen, eta berekin, euskal emakumeek euren janzkera mantentzeko nahia azaldu zuten, nahiz eta eliza eta legeak kontra eduki.

**Eliza eta legeak kontra egon ziren?**

Elizak lege asko atera

zituen ez sartzeko emakumeak elizara horrelakoekin, epaiketak egon ziren... Frantziako eta Espainiako monarkek ere legislazio gogorra ezarri zuten. Tontorrak egiteko diru asko gastatzen zen, lihoaz egiten zirelako, metro asko erabilia, eta askotan urrezko, zilarrezko edo zetazko apaingarriak zituzten. Estatuak ez zuten gura herriko jendea nobleen moduan

janztea. Elizak, emakumearen itxura hartan sexuagaz zerikusia izan zezakeen zeozer ikusten zuten, eta gaiztakeria gazlotu zuten, haren kontra egiteko. Andrekia XVIII. mendera arte jantzi

zuten buruko tontorduna. Monarkiaren eta elizaren legeen kontra mantendu zuten. Kontuan eduki gizarte hura estamental eta patriarkala zela. Janzkera itxura da, eta emakumeek eduki behar zuten itxura botereak esaten zuena izan behar zen.

**Lihoa erabiltzen zela komentatu duzu. Zeintzuk ziren arropa eskuratzeko bideak?**

Pentsatu behar dugu Euskal Herria Espainia eta Flandeseko tartean zegoela. Burdina eroaten zen bate-tik bestera, eta Gaztelako lana Flandesera eroaten genuen, eta hemendik pasatzen ziren Flandeseko oihaletak. Dirua edukiz gero, erosten zuten, eta horrez gainera, etxean egiten genituen gure janzkerak; lihoa oso garrantzitsua izan zen. Gure tontorrek metro asko zituzten eta lihoa moduko oihaletak fina geneukalako lortzen genuen hori egitea. Baserri guztietan egiten zen, eta emakumeen lana zen landatik haria egin arte. Durangon durangiersak egiten ziren. Paineru oso onak zeuden, paineruen lehen kofradiak Durangon eta Bergaran egiten zituzten XV. mendean. Indarra zuten eta kanpoan ere saltzen zuten.

**Horrelako modarik berriro bueltatzea imajinatzen duzu?**

Nik esango nuke gaur egun erabili ahaliko genituzkeela diseinuan eta modan gure janzkerak, eta berriro diseinatu. Gure jantzia erromerira joateko eta euskaldunak garela esateko erabiltzen dugula? Ba oso ondo. Baina nik pentsatzen dut eguneroko janzkeran ekarpenak eman ditzakeela lehengo moda horrek.

**Amaia Mujika**

Bilboko Euskal Museoa  
egiten du lan  
Bilbotarra da

## Sanfaustoz baserritarrak fuera!

“Nekazaritza azoka” biharko atzeratu du gure udalak, gizaldietako tradizio jatorrari uko eginaz, zeren eta eskualdeko baserritarrentzako Uriko jailetako ‘Eguna’ urriaren 13a izaten baitzen, zaindariaren eguna, hain zuzen. ‘Sanfaustoz’ etortzen ziren baserritarrak, baserriko ortu emaitzerik hoberenekin, udalaren eta Bizkai Aurrezki Kutxaren sariak irabazteko asmoz. Oraindik saridun bat baino gehiago bizi dira. Bizi da baita ere Fausto izeneko garaitar bat, zein ia-ia azokan bertan jaio zen, ama etxeko ortuarien Durangora etorri baitzen eta Urian erditu zuelako umeari Fausto izena jarri zioten. Madalenen egiten zen, baita ere, San Fausto Egunean, ganadu sariketa eta bizi dira abeltzain sarituak, hori baiez-tatuko luketenak.

Baina, frankismo garaian ere ezagutu dugun baserritarren zaindariaren eguneko *azoka&feria* saridun hori, kendu eta jaien azken egun bezperara atzeratu da. Hori bai, uritarrak dotore-dotore ‘baserritar *typical*’ jantzita artopilak jateko, baina arto ereiteilak, hots, benetako baserritarrik ez, horiek azokatik fuera! Ia ia domusantuetara.

Tartean, gure udalak, Goierri eskualdeko Ordiziako merkatuak baino askoz urte gehiago duen Durangaldeko zapatuetakoa, indarberritza gura ei du. Tartean, 1884ko eskualdeko hiltegi nagusia, kafe-antzokia bihurtuta eta, 50-60 inguruan, Bidebaltzera (gaurko etorbidera) aldatua, ezabatua, jarraipenik gabe. Eta zinegotzi batek esan zidana: “Durangoko baserritar gutxi du eta hiltegia doala beste herri batera”. Erantzun nion. “Harategi eta kontsumitzaile gehien eskualde hiriburuan bizi garelako eta 128 urtetan hemen egon delako hiltegi publikoa”. Laburbilduz, euskal lehen sektorea, euskal folklokeriariako!



**HARPIDETU ZAITEZ IRRIA ALDIZKARIRA  
2012KO IRAILAREN 16 BITARTE ETA  
OLGETANEKO IKUSKIZUN BONOIA  
OPARITUKO DIZUGU**

Ebaki eta bidali edo eraman orri hau zure datuekin  
helbide honetara: Barbaro Elkartea, Pinondo Plaza 1,  
1go solairua, Durango KODEA: OLGETAN 12



IZENA: \_\_\_\_\_  
ABIZENA: \_\_\_\_\_  
E-POSTA: \_\_\_\_\_  
TELEFONOA: \_\_\_\_\_  
HERRIA: \_\_\_\_\_

